

goiena


DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-07-15
ASTELEHENA
418. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Paralinpiarra izatearren ez dut bazterketarik jasan igeriketan"

Josune Odriozola | Igerilaria | 18



Kutxako dirua euskalgintzan banatuz esan du agur Oñatiko Laixanek | 4

Talde asko Aretxabaletako hirunako saskibaloia lehiatu | 26



Omenaldi hunkigarria, duela 50 urte Ederlan sortu zutenei egindakoa | 12



Oier Eskibel: "Zortea izan nuen, buelta emateko aukera eduki nuelako"

Irudi beldurgarriak utzi zituen Iruñean zapatu goizeko entzierroak; izan zena baino askoz larriagoa izan zitekeen. Eskibel anaia eskoriatzarrak ziren han | 5



Oier Eskibel, gorritz, irudiaren erdian, pilaketara iritsi zen unean. | MENA ARGAZKIAK

Ilusioa eta golak ekarri zituen Realak

Mojategiko harmailak lepo bete ziren Mondraren mendeurreneko partiduan, bi taldeak animatzeko | 22



Xabi Prieto, erdiraketa egitera, harmailak beteta direla. | IMANOL SORIANO

Autokarabana, inongo lotura barik bidaiatzeko aukera ona

- ▶ Gero eta 'autokarabanista' gehiago dago inguruan
- ▶ "Aurrekontua betetzea erraza da", dio zale batek
- ▶ Informazio onarekin, bidaiak norberak antola dezake



Maitane Zabaloa arrasatearrak Europako herrialde asko ezagutu ditu autokarabanarekin.

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Udako oporrak bere kabuz antolatu gura dituenak inoiz baino informazio gehiago dauka esku-agarri. Gainera, krisiak ia denon baliabide ekonomikoak murriztu dituzenez, gero eta gehiagok egiten dute aukera hori: nora joan pensatu eta bidaiak euren lotu, bitartekari gutxiarekin.

Arrasateko Gazte Informazio Bulegoko teknikari Dorleta Kor-

tazarrek dioenez, bulegora joaten den jendeak "bestelako oporrak diseinatzen ditu", eta horretarako informazio bila joaten da.

Joaten direnetako batzuk autokarabanaz bidaiatzen duten herritarrak dira. Kortazarren esanetan, horiek normalean bidaiak itxita eduki arren, errepideetako plano bila joaten dira.

Autokarabanaz bidaiatzea, berez, ez da beste bidaiak mota

batzuk baino merkeagoa ez garestiagoa ere, Arrasateko autokarabana-zale Maitane Zabaloak dioskenez: "Bestelako bidaiak mota batzuk baino garestiagoa izan daiteke, segun eta nora zoazen eta nola antolatzen zaren". Edozein modutan, berak dioenez, askoz autokarabana gehiago ikusten dira orain Euskal Herrian: "Autokarabanentzako gero eta gune gehiago daudelako ere igar-

tzen da: Zumaian, Iruñean... Orain urtebete, horiek ez zeuden. Estatuan ere, izugarria da zenbat hazi den autokarabana kopurua".

'Españoles por el mundo'

Maitane Zabaloak bizi osoa daroa autokarabanaz bidaiatzen, gurasoekin eta mutil-lagunarekin, eta urteko opor guztiak aprobetxatzen ditu irteera bat egiteko; aste bukaera asko ere bai. Lekua auke-

ratzeko eta bidaiak ondo antolatzeko trikimailuak kontatzen dizkigu: "Nora joan erabakitzeke, kasu handia egiten diegu *Españoles por el mundo* eta antzeko saioei. Gero, antolatzeke, autokarabana-guneen gida-liburuak daude, baina Kroazian ez zegoen halako gunerik eta kanpalekuetan egon ginen. Bestalde, joan aurretik herrialde horretako Espainiako Enbaxadari e-maila ipintzen dio-

Plano, deskontu-txartel eta alojamendu-gida bila, Gazte Bulegora

Udako oporrak antolatzeko informazio praktikoa batu eta jendearen eskura ipini du Arrasateko Gazte Informazio Bulegoak. Informazio asko, gero eta gehiago, Interneten topa daiteke, baina gida-liburuxkak, planoak eta aurrez aurre emandako informazioa gurago dituenak zabalik dauka Arrasateko bulegoa. Gazteendako bakarrik ez, bidaiak antolatu gura duen edozeinendako da egokia informazio hori.

Joan den eguna ezker, gainera, egunetan eta egubakoitzetan kalean egongo da informazio-mahaia, hainbat esku-orri, liburuxka, plano eta bestelako materialarekin.

Dorleta Kortazarrek, Arrasateko bulegoko teknikariak Arrasate Irratian esan zuenez, gazte eta helduak hasi dira bulegora jotzen, eta "denetarik

informazioa eskatzen dute: planoak, doazen lekura joateko infraestruturak prestatzeko gida turistikoak, non lo egin, ze garraio mota dagoen, ea badagoen garraio-txartel berezirik, Interneten gaineko informazioa..." eskatzen dituzte, beste gauza batzuen artean. Oso ohikoa da sasoi honetan Donejakue bidea egiteko ze txartel mota behar den edo erabil daitezkeen galdezka joatea hainbat lagun.

Orokorrean, "alokamenduaren eta deskontu txartelen gaineko informazio bila" joaten da jende asko gazte bulegora, Dorleta Kortazarren esanetan. Hantxe egiten dituzte aterpetxe-txartelak eta ikasle-txartelak.

Interneten non bilatzen hasi ez dakienendako ere gauzak erraztu nahian, webgune interesgarrien berri ere ematen du Arrasateko Gazte Bulegoak.



Dorleta Kortazar, Gazte Bulego aurrean. | GOIENA

QUIRÓN
OSPITALEA
Donostia

ESKA EZAZU ORDUA:

QUIRÓN DONOSTIA OSPITALEA | UDALAITZ ZENTRO MEDIKOAN
Tel.: 943 43 71 00 | Tel.: 943 79 44 22

RPS: 122/09

www.quiron.es

KIRURGIA OROKORREKO ZERBITZUA

Tratamenduak:

- Barizeak eta arma baskullarrak: eskleroterapia eta kirurgia
- Uzki-patologia: hemorroideak (HAL/RAR), uzki-fisura
- Abdomen-paretako herniak
- Behazun-maskuria ateratzea (kolezistektomia) laparoskopia bidez
- Azal-tumoreak: neboa, lipomak, kisteak
- Koloneko eta hesteetako patologia
- Urgentziako kirurgia





MAITANE ZABALOA

gu eta informazio piloa bidaltzen digute".

Nondik ibili planifikatzea ere samurra da, Maitanek dioskunez: "Autokarabanisten foro asko daude Interneten eta, beste batzuek kontatzen dutena irakurrita, plano baten gainean antolatu dezakezu erruta. Dena dela, GPSrako ere programa batzuk badaude, errutaz aldatuz gero". Errepide aldetik, "oro har, bidesaria duten edo ez duten errepideetatik ibiltzea da aldeaz aurretik planifikatu beharrekoa".


Janaria, etxetik

Autokarabana-zale horrek dioenez, nahi baino gehiago ez gatzatzeko trikimailuak ere badaude: "Samurra da aurrekontua betetzea, bidesaria duten edo ez duten bideetatik joatea erabakita. Ondo informatzen gara goazen lekuan supermerkatuetako prezioak zeintzuk diren, gasolina non dagoen garestiagoa... Adibidez, Suitzara joan ginenean janaria etxetik eroan genuen; baina aurten Poloniara goaz eta han janaria merkeagoa denez, behar bada gehiago ibiliko gara auto-bideetatik".




GOIENA

BIDAIA TEKA Herrialdeka banatutako karpitetan, mundu osoko gidak, mapak, alojamendua, ibilbideak, planoak, zer ikusi eta zer egin... beharrezko informazio guztia biltzen du han Arrasateko Gazte Informazio Bulegoak. Sarean, www.gaztebulegoa.com.



GOIENA

ETXEAN MODUAN Etxean bidaiariak hartzeko eta norbanakoen etxean geratzeko gertu daudenendako webgunea da www.couchsurfing.org. Aukerak ikusteko, erregistratu beharra dago. Munduko 100.000 hiri baino gehiagoko eskaintzak batzen ditu.



GOIENA

EUROPAKO BATASUNA Europako Batasuneko 27 herrialdeetako batera bidaiatu gura dutenendako webgune ofiziala europa.eu/travel/index_es.htm da. Informazio praktikoa eta aholkuak (BEZ motak herrialdeka, aseguruak, bidesariak, eskubideak eta betebeharrak...) ematen ditu.



GOIENA

KANPO-ARAZOETARAKO MINISTERIOA Espainiako Kanpo-arazoetarako Ministerioaren webguneak (www.exteriores.gob.es), herrialdeka, askotariko informazioa ematen du: aholkuak, herrialde bakoitzeko legedia, behar den dokumentazioa...



GOIENA

AUTOKARABANAZ Espainiako autokarabana-guneen gaineko informazioa, bidaia-erperientzien eta autokarabana-zaleendako albisteen bloga, *autokarabanisten* elkarten webguneen loturak... hori eta gehiago dago www.autocaravanismo.es webgunean.



GOIENA

OSTATUAK ETA ATERPETXEA Espainiako eta Europa osoko ostatu, pensio eta aterpetxeen webgune eta bilatzailea da www.infohostal.com. Erreserba webgunetik bertatik egin daiteke. Horrez gain, eskaintza berezien berri ematen du. Webgunetik autobuseko txartelak eros daitezke edo automobila errentan hartu.



UROLOGIAKO ZERBITZU BERRIA

Tratamenduak:

- Onkologia urologikoa (prostata, giltzurrun, maskuri eta barrabil minbiziak)
- Gernu-obstrukzioa, prostataren hiperplasia onberaren eraginez
- Bagina-prolapsoen eta emakumezkoen zein gizonezkoen gernu-inkontinenzia diagnostikoa eta tratamendua
- Urologia pediatrikoa
- Gernu-traktuaren patologia infektziosoa
- Zutitzearen disfuntzioa



ESKA EZAZU ORDUA:

QUIRÓN GASTEIZ OSPITALEA | UDALAITZ ZENTRO MEDIKOAN
Tel.: 945 25 25 00 | Tel.: 943 79 44 22

MEDIKUAK

Alberto Martín-Marquina · Anibal Rincon · Abel Saiz.

RPS: 136/12

www.quiron.es

Ondasunak euskalgintzan banatuz agurtu da Laixan

Debagunek, Euskalerra Irratiak, Berriak eta Seaskak jaso dute dirua, 25.000 euro denera

JULEN IRIONDO | OÑATI

Kutxan zuen dirua -25.000 euro- Euskal Herriko euskalgintzako hainbat erakunderen artean banatuz irudikatu zuen Oñatiko Laixan euskara elkarteak bere ibilbidearen amaiera, egubakoitz arratsaldean. Era batera edo bestera Laixanen parte hartutako hainbat lagunen eta bazkideren aurrean, 7.150 euro eman zizkion Seaskari, Iparraldeko ikastolen elkarteari, eta beste hainbeste Berria Taldeari; Iruñerriko Euskalerra Irratiak eta gure eskualdeko euskara elkarteak batzen dituen Debagunek 5.150 euro jaso dituzte bakoitzak: euskal kulturaren "beharrik larriena" dutenei eman nahi izan diete dirua.

Honez gain, artxiboa eta egoitzako altzariak Udalaren esku utzi ditu Laixanek, eta Goienako bazkide gisa duen kapitala bertan mantendu, herrian beste elkar-terik sortuko balitz harena izatera pasatuko litzatekeela ados-



Onuradun izan diren erakundeetako kideak, Laixanekoekin. | OIHANA ELORTZA

tuta. Kultura etxean egindako ekitaldian aipatutako erakunde guztietako ordezkariak hartu zuten parte, Laixanen ekarpena eskertuz, bai euskarari eta bai ondasunak banatzearekin egin-

dakoa. Seaskako zuzendari Hur Gorostiagak adierazi zuen Laixanen ibilbidea ez zela egubakoitzarekin amaitu, Beskoitzen egitekoak diren ikastolan zati bat izango duelako Oñatiko eus-

kara elkarteak, hartarako erabiliko ei dutelako jasotako dirua. Laixanen azken zuzendaritzako kide Jose Luis Fernandezek berehala eskatu zion, hori horrela, Laixan izena jarri diezaioten ikasgeletako bati, eta hala agindu zion Gorostiagak.

Gerardo Elortzari laia

Gerardo Elortza izan zen ekitaldiko beste protagonistetako bat, hari oparitu zioten eta elkartearen ikur izan den laia, haren alde egindako lanarengatik. 2009 urte-rik jarduna etenda izan da Laixan, lanerako jende faltagatik; orain, desegin egin dute beraz. Koldo Zumalde azken lehendakari izan denaren arabera ez da tristuraz hartu behar, nahiz eta ez den "pozez saltoka" egoteko ere: "Eman du berea, eta amaitu da". Euskarak beharrezko zuen lana egiten saiatu da Laixan urte hauetan, emankorra izateko itxaropenez: "Fruituak ondoren ikusten dira askotan", zioen Zumaldek.



IBAN ARREGI BERRIA

"Honek erakusten du Berriak baduela inguruan komunitate bat eta laguntzeko prest dagoen jendea. Jendea konbentzitura dago komunikabide sare propio bat behar dugula, Berria behar dugula; hau da adibide bat".



MIKEL BUJANDA EUSKALERRIA IRRATI

"Saiatzen gara euskal jendeari komunikazio zerbitzua euskaraz eskaintzen. Berez ez da erraza, eta zailtasun gehigarri batzuk ere baditugu bidean. Hori berdintzeko lagungarri izango zaigu dirua".



HUR GOROSTIAGA SEASKA

"40 urte dira ikastolak ditugula Iparraldean eta oraindik ez dute aitortza ofizialik, eta dugun apurra ere kendu nahi digute. Hemendik urteetan etorri da jendea ikastolak eraikitzen laguntzera. Orain dirua eman digute, eta hori bikaina da".

Berrehun herritarrek eman dute euren 'epaia' Bergaran

Herriraren ekimen ibiltaria Arrasaten eta Oñatin ere izan da, 197/2006 doktrinaren aurka

JULEN IRIONDO | BERGARA

Hainbat presoren kartzela zigorrak luzatzea dakarren doktrina bertan behera utz dezaten eskatzeko Euskal Herriko 80 herritatik pasatzeko den ekimen ibiltaria Debagoienera ibili da asteburuan, eta Arrasaten eta Oñatin bezala Bergaran ere liburu handi batean euren mezuak uzteko aukera izan dute herritarrek.

Berrehun inguru izan ziren zapatu eguerdian beren ekarpena

egin zuten herritarrek. Irala kalean jarritako gunean txartel gorriarekin -doktrinarekiko aurkakotasuna irudikatuz- argazkia atera eta, inprimatuta, harekin batera *Ekarri ditzagun denak etxera, Ez dugu izaterik aske haiek gabe, haiekin askatuko baikara gu ere edo Kanto, zazpi urte bahituta* moduko mezuak idatzi zituzten. Izan ere, Luis Mari Azkargorta *Kanto* da doktrinaren ondorioz kartzelan jarraitzen duen



Liburuan epaia idazten. | JULEN IRIONDO

presoetako bat. "Oso pozik gaude jendearen erantzunarekin", zioen Bergarako Herrirako kide Gregorio Plazaolak ekimena amaitzat eman aurretioxan.

Estrasburgoko azken erabakiaren zain, irailaren 14an Iruñeko Anaitasunaren egingo dute *Herritarren epaia* kanpainaren azken ekitaldia.

Errauste planta egiteko lanak etenda, GHK-k hala erabakita

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa erakundeak egubakoitzean eman zuen jakitera Zubietan errauste planta egiteko lanen agindua etetea erabaki duela, Ainhoa Intxaurrandieta presidentearen arabera proiektuak ez dituelako Eusko Jaurlaritzaren ingurumen arauak betetzen. "Baimendutako proiektuaren eta eraiki nahi denaren arteko aldeak" oso handiak direla eta "legea urratu gabe" ezingo litzatekeela egin adierazi zuen. "Zubietako errauste plantaren proiektua bertan behera uzteko pauso erabakigarria" eman dutela adierazi zuen GHK-ko arduradunak.

EAJk, PSE-EEk eta PPK gogor salatu dute GHKren erabakia, Bildu hondakinen gaian egiten ari den kudeaketa kritikatu.

Bien bitartean, aste honetan sinatu dute Bergaran konpostatze planta eraikitze-ko lurrak mugitzen hasteko kontratua. Asmoa da 10.000 tona organiko tratatzea planta horretan.

Goienaren RENT
Ibilgailuen alokairua

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIKUA OÑATIN

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

20€-tik eguneko

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

WWW.GOIENARENT.COM

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA XIII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren Industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com

2013

Bi anaia eskoriatzar, sanferminetako zapatuko entzierroko pilaketan

Oier eta Asier Eskibel onik atera ziren, eta bizi izandakoa kontatu digute


JOKIN BEREZIARTUA | ESKORIATZA

24 ordu baino gehiago pasa arren, sustoa oraindik gorputzetik kendu barik. Halaxe hartu gintuzten atzo Oier Eskibel (Eskoriatza, 1984) eta Asier Eskibel (Eskoriatza, 1975) anaiek baserrian: "Gorputza sentsazio arraroekin izan nuen atzo", esan zigun Oierrek.

Duela sei edo zazpi urtetik sanferminetara joaten dira entzierroa korritzera. Entzierro bakarra egiten dute eta aste barruan joatea nahiago izaten dute, jende gutxiago egoten delako. Baina lanak aurten ez die utzi, eta aste bukaeran joan ziren, zapatuan. Bada, 1977a ezkerro gertatu ez den pilaketa bizi izan zuten bertatik bertara. Ez dute ahaztuko.

"Askoz larriagoa" izan zitekeen

Estafetan hasi eta plazara arteko ibilbidea egiten dute urtero: "Dena normal zihoan. Kailejoira heldu aurretik jausi egin ginen biok, ohikoak diren erorikoetako baten. Biok altxatu eta korrika jarraitu genuen plazara heltzeko; kailejoira heldu eta han aurkitu genuen pilaketa", zioen Asierrek. Kailejoira heldu zirenerako pilaketa eginda zegoen eta biek ulertu zuten han ezin zirela geratu, oraindik zezenak atzetik zetoze-lako. Anaia nagusia kailejoiko zuloetatik irten zen, baina gazteena ez zen zulo horiekin akordatu. Atzera egin zuen, ibilbidea: "Zortea izan nuen atzetik



Asier eta Oier Eskibel Eskoriatzan, bertatik bertara bizi izan zuten pilaketaren argazkia erakusten. | JOKIN BEREZIARTUA

jende gutxi zetorrelako eta buelta emateko aukera izan nuelako. Aukera izan nuen ibilbidera bueltatu eta irteteko; eskerrak lehenago erori eta beranduago heldu nintzela plazara".

Asier Eskibelek uste du askoz larriagoa izan zitekeela: "Eskerrak zezenek ez zutela jendearen kontra egin, ez zutela sarraskirik nahi izan; bestela... Joaldunen

ondoan geratu ziren, formal. Zezenen batek atzera egin balu...".

Foruzainekin haserre

Bestalde, zezen plazaren sarreran ate baten orrietako bat traban geratu izana foruzainen errua izan zela diote bi anaiek: "Plazako arduradunak atea irekita utzi zuten foruzainak pasa zitezen eta gero ezin izan zuten itxi. Horrek

eragin zuen gero pilaketa". Bestalde, korrikalarien arteko elkartasuna goraiatu zuten: "Elkartasuna eta laguntzeko borondatea izugarria izaten da halako egoeretan; txalotzekoa da". Foruzainekiko ez dituzte hitz berberak, ordea: "Plazan zeuden foruzain guztiak irten beharko ziratekeen laguntzera. Korrikalariak izan ziren gehien lagundu zutenak".

Venezuelatik Debagoiena ezagutzera datoz, herri mugimendutik

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

Estatuko zenbait herritan hitzaldiak ematen aritu ondoren, etenaldia egingo dute gaur Carlos Ramirez eta Ymaru Parra venezuelarrek Debagoiengan.

"Bolivariana koordinakundeak gonbidatuta, estatu espainiarrean zenbait hitzaldi ematen ari dira, eta gure bailara eta gure ohiturak ezagutzeko egun pasa presatatu diegu". Hala azaldu du Juan Luis Merino Ezker Anitzako kideak, bisitaren nondik norakoaren gainean galdetuta.

Eskoriatzan geldialdia

Eskoriatzan egingo dute aurreneko geldialdia eta, hala, besteen artean, elkarte batetara joango dira bazkaltzera, Urkulura ere bertaratuko dira, Arantzazura... "Bilbon dagoen Venezuelako Kontsulak gonbidatuta bihar Bilbon emango duten berbaldirako indarrak hartzeko balio izango die etenaldiak". Merinok azaldu duenez, Venezuelatik kanpo daramaten denbora gehiena jardunaldietan eta eman dute biek. "Garrantzitsua da tokian tokiko errealitatea, pertsonak, bizimodua eta, oro har, kultura ezagutzea, eta gehienetan ez dute astirik".

Herri mugimenduak

"Demokrazia zuzena eta herri borroka ongi ezagutzen duten bi pertsona dira Carlos Ramirez eta Ymaru Parra", dio Merinok.

Izan ere, berriki zendutako Hugo Chavezek sortutako Inforcentroseko hiri-guneko zein landa-guneko komunitateetan informatika zentroak sortzeko proiektu-koordinatzailea izan da orain arte Ramirez. Parrak, bestalde, autogestioa ongi ezagutzen du, eta auzo-kontseiluak sortzen esperientzia handia dauka pilatuta.

ESANAK

"Eskerrak lehenago erori eta beranduago heldu nintzela plazara; aukera izan nuen buelta emateko"

OIER ESKIBEL | KORRIKALARIA

"Foruzain guztiak irten behar ziratekeen laguntzera. Korrikalariak gehiago lagundu zuten"

ASIER ESKIBEL | KORRIKALARIA



Asier Eskibel –berdez– zapatuko entzierroan, pilaketaren aurretik. | MENA ARGAZKIAK

LENIZ
ESKORIATZA

SUZUKI

KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika



Errentan eman edo saldu nahi diren lokalek eta etxebizitzek energia ziurtagiria beharko dute. | LEIRE KORTABARRIA

Informazio okerra antzeman dute energia ziurtagiriaz

Energiaren Euskal Erakundeak gauzak argitu nahi ditu etxe-jabeendako, eta pauta batzuk ematen ditu

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Askotariko albisteak agertu dira azkenaldian, etxebizitzaren energia ziurtagiriaren (RD235/2013 da bere izen teknikoak) harira, eta batzuk zuzenak ez direla eta jendea nahastu dezaketela konturatu da Energiaren Euskal Erakundeak. Horregatik, informazio zuzena argitaratu du. Besteak beste, argitu nahi izan du etxe-

bizitza guztiak ez dutela ziurtagiri hori atera behar; bakarrik saldu edo errentan eman nahi diren etxebizitzek eta lokalek.

Horretarako gaitasuna duen teknikari batek –ingeniarria edo arkitektoa– egin behar du ziurtagiria, Industria Ministerioak bere webgunean doan ematen dituen CE3 edo CE3X programekin. Teknikari horiek egiten duten

txostena da Energia Ziurtagiria. Energiaren Euskal Erakundeak hortik aurrera eman beharreko pausoak zehazten ditu: Eusko Jaurlaritzak horretarako sortu duen erregistro publiko eta doakoan erregistratu beharko da, modu telematikoan, eta teknikariak egingo du hori. Erregistroak, trukean, Energia-Etiketa emango dio, eta hor bi datu garrantzitsu

agertuko dira: erregistro-zenbakia eta bi adierazle nagusiak –lehen mailako zenbat energia kontsumitzen duen eta zenbat CO2 botatzen duen–, adierazle bakoitza etxebizitza edo lokal horren nota edo kalifikazioarekin.

Hasieran behintzat, eraiki berri diren etxebizitzaren edo lokalaren erregistroa bakarrik egongo da, eta gerora, etxebizitza edo lokal guztietarako erregistroa bakarria.

Iragarkietan, zenbakia ipini

Etxebizitzaren edo lokalaren jabeak bi gauza jasoko ditu: txostena eta etiketa.

Etxebizitza edo lokala erosi edo alokatu gura dutenei etiketa eman behar zaie, eta etxe-agentzietan, Interneten edo komunikabideetan ipintzen diren iragarkietan erregistro-zenbakia eta etiketan agertzen diren bi kalifikazioak edo notak eman behar dira.

Higiezina saldu edo errentan ematen deneko kontratuan ere dokumentazio hori derrigorrez eman beharreko zerbait izango da, notarioaren aurrean eta jabe-erregistroan.

Eraikin berriena gertu dago

Euskadin, eraiki berri dituzten etxebizitzaren eta lokalaren energia ziurtagiriaren erregistroa dagoeneko martxan da, eta Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren webgunean (www.industria.ejgv.euskadi.net) zehazten da hori erabiltzeko zer egin behar den.

Orain falta da etxebizitza eta lokal zaharragoen ziurtagiriaren erregistroa martxan jartzea. Bien bitartean, halako eraikinen baten salerosketa edo errenta-kontratua egin behar bada, eskriturak egiterakoan txostena eroan behar da, notarioak idatz dezan.

Gipuzkoan 4.500 gailu aldatu dira Renovearekin

L.K. | ARRASATE

Ekainaren 3an, Eusko Jaurlaritzak etxetresna elektrikoek buruzko 2013ko Renove Plana jarri zuen abian, kontsumo handiko etxetresna elektrikoak efizientzia handiko beste batzuekin ordeztzeko, eta orain plana amaitu da, laguntza horietarako zeuden 1,5 milioi euroak bukatu direlako.

A++ klaseko gehiago

Energiaren Euskal Erakundeak 13.184 laguntza-eskaera kudeatu ditu beste hainbeste etxetresna elektrikoetarako: 7.663 arropa-garbigailu, 3.190 hozkailu, 2.061 ontzi-garbigailu eta 270 izozkailu.

Etxetresna elektriko berrietatik 7.359 unitate A++ klasekoak dira, eta horietako bakoitzari 105 euroko laguntza eman zaio; 5.825 unitate A+++ klasekoak dira, eta horietako bakoitzak 125 euro jaso ditu. Arropa-garbigailuen kasuan bakarrik saldu dira A+++ klaseko gailu gehiago A++ klaseko baino.

Bizkaian egin dira 7.159 salerosketa; Gipuzkoan, 4.564, eta Araban, 1.461.

Makineria enpresek %5 energia aurreztu dute

L.K. | ARRASATE

Makineria fabrikatzaile industria sektoreko enpresek % 5 energia baino gehiago aurreztu dute Gipuzkoako Bazkondeak bultzatu duen proiektu bati esker. Aurreztutako energia Gipuzkoako 115 familiak urte betean kontsumitzen dutenaren parekoa da.

Proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxa Ekogunearen finantzazioa eta Adegiren laguntza jaso du. Planteatu diren neurriek 180.000 euroko inbertsioa dute, baina aurreztutako energiari esker enpresek 8 hilabetean berreskuratzen dute gastu hori.

Ekimenak izan duen arrakasta ikusita, lau entitateek proiektua beste urte betez luzatzea erabaki dute.

2011tik aurrera

Energia-eraginkortasun proiektua 2011n jarri zen martxan. Urte hartan bertan egin zuten lehen fasea eta bigarrena 2012an egin da. Gipuzkoako Bazkondeko Iñigo Mugu-ruzak Goiena *Magazinea*-n esan zuen moduan, proiektuan Debagoieneko enpresa dezentek parte hartu izan dute.

Sindikatuak kezka eta enpresaburuek itxaropenez hartu dute ultraaktibitatea amaitzea

Urtebete edo luzeago berri gabe zeuden lan-hitzarmenak indargabetuta geratu dira

L.K. | ARRASATE

Euskadiko langileen % 60 lan-hitzarmenik gabe daude uztailaren 7a ezkerrean. Egun horretan, ultraaktibitatea bukatu zen, hau da, gutxienez urte betean iraungita (kadukaduta) zeuden hitzarmenak indar gabe geratu ziren. Euskal sindikatu nagusiek eta Juan Maria Aburtok, Enplegu sailburuak, kezka azaldu dute.

ELA sindikatuak azaldu duenez, "asko dira, Confebasken gomendioei kasu eginez, euren hitzarmenak indarrean ez daudela jakinarazten duten enpresak", eta Debagoiengan ere hori gertatzen dabilela esan dute. Enpresa horietan, lan-baldintza guztiak edo batzuk maila goragoko hitzarmenaren edo oinarritzko araudiaren bidez erregulatzen direnez, gehienetan txar-

rrera egiten dutela azaltzen du ELAk. LABek iragarri du lan-hitzarmenak iraungi diren enpresetan gatazka gehiago egongo direla. ESK-en iritziz, "borrorak jarraitu egin behar du". Unai Sordok (CCOO) esan du "arduragabekeria" dela Adegiren jarraia; eta Raul Arzak (UGT), enpresaburuek "30 urteko oreka hautsi" nahi dutela.

"Konfiantza beharko da"

Adegiko idazkari nagusiak, Jose Miguel Aierzak, esan duenez, aro berriaren ezaugarri nagusia "kultura aldaketa" da, eta "enpresaren barruan akordioak lortu ahal izateko, alde guztien arteko konfiantza egon behar da beste ezeren gainetik". Aro hori "aukera gisa" erabili behar dute enpresek, bere esanetan.



FAGOR ARRASATE

Posada, Txinako Fagor Arrasaten

Espainiako Diputatuen Kongresuko presidenteak, Jesus Posadak, eta hango beste 10 goi-ordezkarik Fagor Arrasatek Kunshanen (Txina) duen lantegia bisitatu zuen astelehenean. Txinan Espainiak duen enbaxadorea, Manuel Valencia, eta enbaxadako beste ordezkari batzuk ere bertan izan ziren. Fagor Arrasateko Txinako gerenteak, Jon Agirrek, hartu zituen arduradun guztiak.

Ana Isabel Perez Machio | Kriminologiaren Euskal Erakundeko kidea

"Genero Indarkeriaren Legea guztiz martxan ipintzeko baliabide ekonomikoak falta dira"

- ▶ Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundean kongresu arrakastatsua egin dute
- ▶ Legedia garatzeko dagoen baliabide faltan, krisi ekonomikoak zerikusia duela uste du

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Genero indarkeriaren inguruko nazioarteko kongresua egin dute Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundean, joan den eguaztenetik egubakoitzera bitartean. Kriminologiaren Euskal Institutuko Ana Isabel Perez Machio horko batzorde zientifikoko kideetako bat izan da. Genero Indarkeriaren aurkako Lege Integrala tresna ona, baina "ez nahikoa" da, bere iritziz.

Ze helbururekin egin duzue honako kongresua?

Nahiz eta genero indarkeriaren inguruko lege bat egin zen orain bederatzi urte, eta nahiz eta iruditu antzinako gauza bat dela, eguneko albisteei jarraituz ikusten dugu aztertu egin behar dela oraindik genero indarkeria. Gainera, praktikak esaten digu legea eta zuzenbide penala ez direla nahikoa fenomeno horri aurre egiteko eta bestelako tresnak erabili beharko direla etorkizunean.

Genero indarkeria gaurkotatzen gaia da eta, nire ustez, ikuspegi desberdinak batzea da kongresuak aporteratzen duena. Diziiplina askotariko kongresua da, eta horretan dago bere helburu edo erronka nagusia. Berrehun lagun baino gehiago etorri dira: juristak, baina baita psikologoak, soziologoak eta gizarte langileak ere. Izaera askotako profesionalak eta pertsonak daude gai horretan interesatuta estatuan eta nazioartean.

Prebenitu daiteke genero indarkeria, aurrea hartu diezaiokegu?

Prebentzioa bermatzea oso garrantzitsua da, eta bi ikuspegitik egin daiteke: batetik, horrelako fenomeno bat izan eta gero, biktimarekin eta egilearekin tratamendu bat jarraitu behar dugu; biktimarekin, berriz biktima ez izateko, eta egilearekin, horrelako portaerak berriz ez egiteko.

Bigarren mailako prebentzioa da hori. Eta badago lehen mailakoa deitzen dena. Emakundeko zuzendariak kongresu hasieran esan du Euskadin martxan dagoela Nahiko izeneko programa bat, eskolatan berdintasunezko balioak lantzeko. Azken baten, desberdintasunaren adierazpen larriena da indarkeria, eta txikitatik landu behar dugu berdintasuna ume horiekin.

Bere momentuan, asko txalotu zen Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integrala. Nola baloratzen duzu orain, 9 urte eta gero?

Une hartan beharrezkoa zen tresna bat izan zen; gaur egun ere

beharrezkoa da, izan ere, ez zegoen genero indarkeria ikuspegi orokor batetik lantzen zuen tresna juridikorik. Beraz, bai, txalotu egin behar da. Baina tresna hori guztiz martxan jartzeko, ahalegin ekonomikoak egin behar dira, eta hor dago akatsa, nire iritziz. Oso ondo egituratuta dago legea, ikuspegi objektibo eta formal batetik askotariko elementuak ditu prebentziorako, babesteko, tratu txarrak eman dituztenekin lan egiteko... baina akatsa da baliabide ekonomiko gutxi dardela mahai gainean. Gaur egungo krisiak beharbada eragina izango du.

Azpinarratu nahi dut legea ez dela nahikoa; beharrezkoa, bai, baina ez nahikoa. Bestelako pausoak eman behar dira, eta bidean gaude, nire ustez. Ez dakit zenbat belaunaldi beharko dugun genero indarkeriari buruz ez hitz egiteko. Zoritxarrez, gaur [eguzten] goizean Granadan beste emakume bat hil dutela jakin dugu. Horrek esan nahi du legeak berak ez duela hasieran uste zuten emaitzarik lortzen.

Asko azpinarratu izan da emakumeak laguntza eskatu behar duela eta salatu egin behar duela, baina askotan ez da hori gertatzen.

Zaila delako. Ulertu egin behar dugu nolakoa den fenomeno hori. Genero indarkeriaren atzetik mendekotasun emozionala dago, eta horrek sekulako eragina dauka emakumearengan. Guk ezin diogu eskatu horrelako biktima bati salatu dezala, kontuan harturik bere irudimena: uste du ez du ezertarako balio eta bere bikotekide barik ez dela ezer izango.

Gero, salaketa jarritakoan, automatikoki sistema martxan jartzen da eta hori geldiaraztea ezinezkoa da, nahiz eta gertatutakoa larria ez izan. Erreformatik beharrezkoak izan beharko lirarteke, nire iritziz; izan ere, ondo zehaztu behar da zer portaera barneratzen diren genero indarkeriaren kontzeptuaren barruan. Askotan, gizon eta emakume batzuen artean dauden portaera guztiak horrelako kontzeptu larri baten barneratzen ditugunean, beharbada, ondorioak ez dira hasieran nahi izan genituzkeenak izango.

Horrela izanda, emakumearen ingurukoek edo gertuko erakundeek egin dezakete zer edo zer?

Historikoki entzun dut genero indarkeritik irteera nagusia heziketa eta kultura dela. Nire ustez, hala da. Noski, daukagun beste-



Ana Isabel Perez, Oñatiko Unibertsitatean. | LEIRE KORTABARRIA

"Txikitatik landu behar dugu berdintasuna umekin"

"Gazteen artean ere badago genero indarkeria; zerbait dago gaizki hor"

lako tresna hori, legea, prebentzioa, babesa... bai, elementu horiek beharrezkoak dira. Baina genero indarkeriaren arrazoi nagusia, edo ondoen esplikatzeko duena, hori da: etxean jasotako heziketa eta daukagun kultura. Hori bideratuko bagenu, eta askori irudituko ez balitzaie zenbait porteara normalak direla, askoz gehiago aurreratuko genuke.

Familiakoek eta ingurukoek daukaten rola oso garrantzitsua da, emakumeak laguntzeko eta emakumea konturatzeko. Ara-

zoa da horrelako egoera baten gaudenean oso zaila egiten zaigula hori genero indarkeriaren adierazpen bat den edo ez bereiztea, eta kanpokoek errazago ikus dezakete bikote horretan gertatzen dena.

Indarkeria mota hori heziketa eta kultura arazoa baldin bada, gazteen artean egoera hobexegoa da?

Zoritxarrez, ez. Emakundeko zuzendariak aipatu du gazteen artean genero indarkeria portararak daudela; ez gero eta gehiago, baina badaude, eta kontuan hartu behar dugun datua da. Iruditzen zaigu gaurko gizartean, daukagun askatasunarekin, informazioarekin... horrelako adierazpenak gutxitu egin beharko lirartekeela, baina praktikak alderantziz esaten digu. Zerbait dago gaizki hor, zerbait bideratu behar dugu hor.

Genero indarkeria zeinek egiten duen eta zeinek jasaten duen inguruko estereotipoak badaude oraindik?

Gero eta gutxiago. Baina, askotan, gizarteak ezin du ulertu epailea, medikua edo unibertsitate irakaslea den emakume bat nola izan daitekeen biktima. Biktimen egoera marginazio egoerekin, edo heziketa ez duten emakumeekin lotzen dugu, baina esperientziak esaten digu gizarteko maila guztietan gertatzen dela genero indarkeria.

Edozelan ere, egia da emakume etorkinekin bereizteko emakumea izateagatik ematen den biolentzia?

Bai, noski. Eta hor, bi arazo ditugu: batetik, genero indarkeria bera, eta bestetik, haiek ekartzen duten zama kulturala, eta horri, askotan, irregulartasuna gehitzen badiogu, horrek denak duen eragina oso handia da. Oso kasu gutxiren berri dugu emakume etorkinen artean, eta arazoa dago hor, salatzerakoan mahai gainean jartzen dutelako irregulartasuna, eta horrek beste ondorio batzuk izan ditzakeelako: adibidez, zuzenbide administratiboak kanporatzea.

Hezkuntza edo kultura hori garatzeko ze tresna egon daitezke?

Nik garbi daukat: eskolatik, etxetik hasi beharko ginatete, berdintasunezko balioak lantzea eguneroko gauza bat izan behar delako, eta guraso direnek zeregin handia daukate hor. Eskolatan badaude programak, baina etorkizunean, beharbada ez genero indarkeria desagertzeko, baina bai oso kasu gutxi egoteko tresna nagusia hantxe dago.

ZABALIK

GOTZON IPARRAGIRRE
http://goiena.net/iritzia/



Begiradak

noiz pentsatu izan dut zein ote den arrazoia gure modukoek kristal ilunak dituzten autoak aukeratu ditzaten. Ez dakit tendentzia bat den, moda kontu bat, baina niri halako isolamendu ukitu bat iradokitzen dit.

Kanpotik ez ikusi nahia al da? Ala barrukoak kanpoan begirada jarri nahia kanpokoa ohartu gabe? Ez dakit. Halakoetan ez da erraza izaten auto barrukoak agurtzea, nor doan ez jakinagatik. Atzerako ispiluak ere ilunak ote dituzte?

Autoaren gaineko burutazio hauek ez dakit ba ez duten, neurri baten, gaurko gizartea islatzen: ilundu kristalak, jaitsi atzerako ispiluak, eta goazen, norbera bere bidetik, aurrera, zuzen, albotara asko begiratu gabe.

Zaharren nahi eta ezina modu ezin gordinago baten kontatzen zuen Bertolt Brechten poesia batek, gerora Xabier Letek musikatu zuena; hala zioen zaharren gero eta ibilbide laburragoen harira: "Ohetik salara, ohetik leihora, ohetik ohera" omen doaz euren ezinean. Nork begiratuta, sarri askotan behintzat?

Gaixotasun larriren batek jota senitartekoren duenari, edo gaixotasuna izan duen bati galdetuz gero, lehenengotariko sentsazio moduan kontatzen dute begirada ezaren sentimendua, gehien behar denean: inork begiratu eza, edo gehienez, begirada iheskor bat.

Muturretara jo gabe, denok sumatu dugu begirada ezaren mingotsa, dakarren bakardade sentsazio hutsala, eta nola ez, norbaiten begirada gudan pausatzen deneko esperientzia ere, begirada samur batek daukan eragin terapeutikoa, begi errukior batzuek barru guztia nola koloreztatzen diguten... Benetako errukiaz ari naiz, eta ez erlijioek erosi ezin daitekeen zerbait, prezio merkean saldu nahi izan duten errukiaz... Begiratzen duena eta begiratuera eraldatu ditzakeen errukia.

Hain urrun, hain gertu, kristal garden baten, edota kristal opakatu baten distantziara. Begiradak.

"Denok sumatu dugu begirada hutsaren mingotsa"

USTEAK USTE

INAZIO ARREGI | iarregi@goiena.com

Uztailaren 7a igarota

Uztailaren 7a igarota, ehun milaka langile dira lan hitzarmen baten babesik gabe geratu direnak. Soldatak eta eroste ahalmena etengabe behera ari dira eta egoera berri honek beherantz bultzatzen segituko du. INEk 2011ko soldata egitura argitaratu berri du. Datu kezkarriak azaltzen dira. EAEko batez besteko urteko soldata Estatuko altuena da oraindik ere, baina %0,8 jaitsi da 2010arekiko. Auskalo zenbat jaitsi den ordutik hona. Adinkako banaketari erreparatu nahi izan diot eta Estatuko agregatuak bakarrik aurkitu ditut. 50-59 urte bitartekoek 30-34 urtekoek baino %34 gehiago irabazten dute. Gizonen kasuan aldea nabarmenagoa da: %38. Zer ote dator!

KALE INKESTA

Gaur egun gertatzen dabilzan ustelkeria kasuen aurrean, herritarrek ze jarrera erakusten dutela uste duzu?



FERNANDO FERNANDEZ
QUEL (ERRIOXA)

"Neurriak ez ditugu guk hartu behar, eta hartu behar dituztenek ez dute ezer egiten. Euren artean babesten dira".



GAIZKA ERAÑA
ARRASATE

"Horren aurrean haserrea da daukaguna, baina beste zer egin daiteke? Guk politikariak aukeratu ditugu".



JOKIN MUJIK
ARRASATE

"Uste dut gehiago mugitu beharko ginatekeela, eta erabakiak hartu. Euren ez dituzte hartuko".



GORKA ARREGI
ARRASATE

"Uste dut herritarrek normaltasunez hartzen dugula gertatzen ari den dena eta horrek badauka bere arriskua".

HANDIK ETA HEMENDIK

Begien aurrean izanik ere

Aritz Galarraga
berria.info/blogak/ekografiak/

Buruari eman eta eman aritu naiz azken egunotan –eta, sinets egidazue, ez da sarri askotan gertatzen–: astearteko zutabearen sujeta egoki aukeratu ote nuen.

Hobeki azalduko naiz. Iruñeko sanferminetako txupinazoaren ondotik bi gauza nabarmendu dira, besteren gaintik –eta ez derrigor ordena horretan–: batetik, ikurrina eraldoi baten agerpenak eragin zuen asaldura eta bozkarioa –eta ez zati beretan–; bestetik, urtetik urtera errepikatu –eta auskalo aregotu– egiten diren emakumeen aurkako ukikatzeko eskandalagarri, nardagarri, salagarriak.

Ados. Neuk ere ikusten ditut biak, bieran paratzen naiz ahularen alde. Non dago, hortaz, arazoa? Zertara dator buru-eragite hau?

Bada, arrazoi duzue, ez da zaila asmatzen: emakumeek urtero jasaten duten abusuaren aurrean,

ikurrinari eskaini nion astearteko zutabea, azken buruan, trapu bati –eta, ikusten, berriz hasi naiz haserretzen ikurrinarekin; gaixoa, ez dit ezer egin eta–.

Eta okerrena da ikusi egin nituela emakumeen aurkako ukikatzeko, zuzenean, batez ere ETB1en.

Momentu batean tentazioa izan dut astearteko aukeraketa justifikatzeko, neure buruari esateko telebistan bat agertu zela eta ez bestea.

Baina memoriak propio egindako jokaldia izan da: jo dut hemeretaketara eta, bilaketa ez oso zorrotz baten ondotik, berriz agertu zaizkit berehala larunbatean bertan ikusi nituen irudiak.

Adibidez, neska bat ezetz esaten buruarekin, eskuekin eutsiz T-shirta edo bularrak, edo biak batera, erdi negarrez ia, begiak itxita, oihu batean bezala.

Adibidez, beste neska bat eginahalak egiten kamiseta erauzi ez diezaioten inpunitate osoz, alferrik, txikituta bukatuko baitu –kamisetak, seguru–, biluzik.

Eta irudiak gutxi balira bezala, hor zeuden txupinazoa

komentatzen aritu ziren ETBko aurkezleak –eta hori haien alde–: zeinen irudi itsusiak, ohitura bilakatu dira dagoeneko.

Ohitura makabroa, inondik ere.

Nire begiek ikusi zuten trapua, beraz, eta ez kasu honetan pupua.

Begien aurrean izanik ere.

Eta, ados, katolikoak izanik badakit bekatu hau hiru agurmaria erretratuta zuzenduko dudala edo June Fernandezek ikastaro batekin.

Baina sarri askotan kontrakoa pentsatu arren, dezepzionagarria da ikustea zu zeu ere nahiko zenukeena baino gehiago zarelako gizarte honen parte, gizarte matxista honen isla ezin garbiagoa.

Alegia, ezin zikinagoa.

Erruki-gabekeria

Bixente Serrano Izko
berria.info/blogak/bixente/

Sarkastiko "Aita Estatua"-z eta Caritasen militante, batzuk.

Krudelkeria ote dute oinarri, karitatea egiten gozoso ibiltzeko?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal
Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Julen Irujo
Maketaria Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziertra Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutzone Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordinak: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

MONDRAK 100 URTE

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK

GAUR, 22:00 | IXABI URZELAIK AURKEZTUTA

BABESLEAK:



GOIENA TELEBISTA | MONDRA, 100 URTE IRUDITAN

GAUR, 22:45 | OIHAN VITORIA ETA JOKIN URIBEETXEBERRIAK EKOIZTUA



UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Juan Maria Makazaga | Mendi zinegotzia Leintz Gatzagan (2003-2007)

- ▶ Uren saneamendua egitea egokitu zitzaion
- ▶ Gasa ere ekarri zuen gatzagarren etxeetara
- ▶ Zinegotzi izan aurretik aguazila izan zen

"Oraingo ordezkariari gomendioak emango nizkieke, baina ez didate kasurik egiten"

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA
Aretxabaletan jaiotakoa (1932), Juan Mari Makazaga *Pequeño*-k kooperatiban egin du lan erretiratu arte. Ederlan erretiratu zen, hain justu, baina Zerrajeran jardun zuen aurretik.

Udal kontuetan sartu aurretik, Pequeño, zeinek ipini zizun goitizen hori? Zer dela-eta?

Jaiotzez Aretxabaletako auzo txiki batekoa naiz, Mendiola baino lehen dagoen Arkarazo auzokoa. Aita ere han jaio zen, eta handik Aretxabaletara jaisteko oinez jaitsi beharra zuen. Hainbat lagun Aretxabaletan geratzen ziren bazkaltzen. Nire aita ni baino handiagoa zen, eta bere lagun bat txiki-txikia. Andra batek behin esan zuen: bati esan behar diot *Grande* eta beste *Pequeño*. Harrezkero *Pequeño* esan zioten. Eta niri ere bai. Gatzagan nire izena esanez gero, askok jakin ere ez dute egingo zein naizen.

Herritar ezaguna zarela kontatu didate. Zeu animatu zinen zinegotzi izatera, edo ezagun izatearren eskean etorri zitzaizkizun bila?

Herri txikietan jendeak ez du nahi izaten halakoetan jartzerik, eta esan nuen neu izango nintzela. Urte mordoan aguazil izan nintzenez, ezaguna nintzen. **Aguazil? Noiztik?**

Erretiratuta noa 23 urte. Bada, erretiratu ostean bost urtez izan nintzen, eta lehenago beste 14 urtez. Erretiratu ostean 24 orduan lan egiten nuen, edozein ordutan etortzen ziren-eta. Herria oso ondo ezagutzen dut, baina arazoak ere hala izan ditut. Zinegotzi sartu nintzenerako aguazil izateari utzi nion, sei bat urte lehenago. **Oroitzapen onak utzi dizkizu zinegotzi zereginak?**

Bai eta ez. Herri txikietan jendearekin haserretu egiten zara gauzak behar den moduan egiteko, eta dauzkat oroitzapen onak eta txarrak.

Uren saneamenduarekin arduratu zinela kontatu didate. Lan handia

"Herri txikietan jendeak ez du nahi izaten halako lanetan jartzerik"

"Urte mordoan aguazil izan nintzenez, ezaguna nintzen"

izango zen hori, ala?

Bai. Lehen demaseko problemak izaten genituen. Iturburu txiki batzuk genituen hartuta, hodiak zaharrak ziren, apurtu egiten ziren eta ur-ihesak topatzen ibili behar izaten genuen handik eta hemendik... Uren saneamendua ni nengoenean hasi ginen egiten eta hiru ekinalditan egin behar zen. Oraindik bat falta da egiteko. Herri txikietan dirurik ez da izaten-eta... Orain ere bada ur-ihesak bat, eta hura topatu ezinda dabil-tza. Eta 81 urterekin oraindik ere muturra sartzen ibiltzen naiz. Etxean haserre egiten didate, baina, gustatu egiten zait-eta... **Gasa ere ekarri omen zenuen...**

Bai. Propanoa. Campsak bonbona handi bat dauka han goian. Baina garestia da gasa, eta jende askok etxeraino eramanda du, baina barrura sartzeko beldurrez dago. Gainera, Udalak egurra ematen du, eta...

Baserritarrek gertuago jasotzen dituzte orain gutunak zuen sasoi az geroztik, ala?

Bai. Udaletxe barruan zeuden postontziak, baina hura arratsaldetan itxita dago... orain etxetik gertuago dute, eta hobeto funtzionatzen du.

Eta udaletxe ondoko ziburuak ere zure sasoiak ei dira...



Juan Mari Makazaga Pequeño, udaletxe aurrean. | MONIKA BELASTEGI

Ni udaletxean nengoela egin ziren, bai, baina beste bat ibili zen: Nerea Maruri. Askok lagundu zigun Nereak. Orain Osintxun dihardu lanean.

Mugarrien gaia ere landu zenuen...

Mugarriak jausita zeuden, pistak

"Ni hona etorri nintzenez (41 urte) ia hondoratuta zegoen herria"

"Goitik beherako kalea berria da, etxe berriak... ederra diferentzia!"

eginda-edo. Haiek zuzen ipintzen ibili nintzen. Eta gaseoduktoa hemendik pasatu zenean orain 40 urte, mugarri batzuk bota eta aldrebes ipinita zeuden.

Oraingo udal ordezkariari gomendioaren bat emango zenieke?

Emango nieke, baina kasurik ez didate egiten. Suhia daukat zinegotzi, eta esanda ere, berarekin egiten du aurrera.

Askok aldatu da Gatzaga zure sasoiatik hona?

2003tik hona asko ez. Aurretik, bai. Orain 41 urte, ni etorri nintzenez zegoen ia guztia hondatuta. Etxeak, udaletxea eta kultura etxea ere bai. Hotelera sartzeko beldurra ematen zuten, Gatz Museoa total jausita... Goitik beherako kale guztia berria da. Arrate tabernatik beherako etxe guztiak berriak dira, Santiago kalekoak berrituta daude... Eder-rra diferentzia!



Kaskoa funtsezkoa da. Istripuan, buruko zaurien arriskua %85 murriztu dezake.

Errespetatu dezagun. Errespetatu gaitzazu.



Ikusi bideoa:
goiena.net/gaia/errespetatu

HERRIAK

BERGARA

Auzoko: euskaratik urrun bizi diren herritarrek erakartzeko

- ▶ 2010ean ipini zuten egitasmoa martxan eta aurten hasi da lehen fruituak ematen
- ▶ Topaguneak, Udalak eta Jardun euskara elkarteak dihardute lanean elkarrekin

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

2010ean ipini zuten martxan Auzoko egitasmoa Bergaran. Udalak, Jardun euskara elkarteak eta Topaguneak elkarrekin, euskaratik urrun daudenak euskarara hurbiltzeko lanean hasi ziren. "Egun dugun elebitasuna gainditu, eta euskara guztien arteko komunikazio eta kohesio hizkuntza izatea bultzatzea da gure erronka. Euskara erabiliko dugu", esan zuten.

Bada, orain, 2013ko urtarrietik ekainera arteko txostena aurkeztu dute. "Emaitza txikiak baina asko izan dira, eta ibilbide honetan aurrerapausoak eman ditugu Bergaran", azpimarratu dute Auzoko egitasmokoek.

Egubakoitzetan talde sendoa

Hiru helburu zehaztu zituzten 2013ko lehen sei hilabeterako: egubakoitzetako talde iraunkorra mantendu eta indartu; emakumeengana gerturatu; eta herritarren sentsibilizaziorako ekimenak bideratu.

Lehen helburua bete dute: talde nahiko egonkorra lortu dute. Astero, egubakoitzero elkartzen dira, eta, hainbat metodologia erabilia, herrian egoten diren ekimenetan parte hartzeraino heldu dira; besteak beste, Santa Ageda bezperan kantuan irten ziren 20 bat lagun; urte txinatarrak ospatu dute; Korrikan parte hartu dute; eta Erramu Zapatu egunean txorimalo lehiaketan parte hartu zuten. Hilabete behar izan zuten txorimalo egiteko, eta lehen saria irabazi zuten.

Egubakoitzetako taldean 20 auzokide –euskarara hurbildu gura dutenak– ibili dira; besteak beste, senegaldarrak, pakistandarrak, sahararrak eta ganbiarrak. Eurekin elkartzen dira auzotarrak, bergararrak. Ama hizkuntza euskara dutenak.

Talde horietako auzokideek askotariko euskara maila daukate: batzuk hasiberriak dira eta beste batzuek euskara ezagutzen dute edo euskaltegiko ikasleak dira. "Dena den, hau ez da oztopo izan lagun taldearen garapenerako. Egin ditugun ekintza guztiendako baliagarri izan zaigu", diote arduradunek.



Auzoko egitasmoan parte hartzen duten auzokide eta auzotarrak, Goralara egindako ibilaldian. | AITZIBER PLAZAOLA

DATUA

25

LAGUN

Egubakoitzetako taldeko kideak dira: bost auzotarrak eta 20 auzokideak.

Emakumeekin, zailago

Bigarren helburua emakumeekin lanean hasteko talde bat sortzea zen. Egitasmoaren dinamizatzaileak emakumeengana gerturatzeko saiakera egin eta 30en batekin egin zuen berba. Horietako hamar emakume batu izan dira noiz edo noiz taldera.

Martxoaren 8rako egin zuten emakumeak biltzeko lehen deialdia, eta nahiko arrakastatsua izan zen. Baina, asteek aurrera egin ahala, indarra galdu du taldeak. "Harremana egitetik talde iraunkorrera etortzera arteko urratsa oso zaila ikusten dugu. Proiektuarekiko interesa erakusten dute, baina gutxi batzuk dira saioetara etortzen direnak", diote txostenean.

Taldea egonkortze aldera, apiril erdialdean astero elkartzeko apustua egin zuten. Orduetik hona, astero biltzen dira emakumeak. Dena den, taldea sendotzeko "lan asko dago egiteko".

Emakumeen taldearekin ezohiko ekintza bakarra egin dute: Udalak jaietan antolatutako bingo jokoan parte hartu zuten elkarrekin bost emakumek.

Ekintzak herritarrekin

Auzoko egitasmoaren lehentasuna lehen bi helburuak baziren ere, herritarren sentsibilizaziorako ekimenak martxan ipintzen ahalegindu dira. "Lehen bi helburuak betetzeko lan handia izango genuela jakinda, hirugarrena betetzeko plangintza zehatzik ez genuen egin, baina ez gara geldi egon", diote.

Hiru ekintza nagusi egin dituzte: Bergarako jaietan hizkuntza aniztasunaren alde, txartel batzuk ipini herriko kale esanguratsuetan; gaztetxearen urteurreneko ekintzetan hizkuntzen garrantziari buruzko sentsibilizazio tailerra antolatu; eta kultura ezberdinen arteko ezagutza lortu eta hori besteekin partekatzeko hartu-emanak egin.

Bide luzea aurretik

Auzoko egitasmoaren lehen sei hilabetearen txostenak erakusten du euskaratik urrun bizi diren herritar asko hurbildu dela euskarara: batzuek oinarritzko hitz eta esaldiak ezagutu dituzte, beste batzuek

euskaltegirako bidea egin dute eta beste askok euskal hiztunekin ikasten jarraitzen dute. "Hiru urteko bidea egin dugu, baina bide luzea daukagu aurretik", esan dute Auzoko egitasmoaren arduradunek.

AITZIBER PLAZAOLA | DINAMIZATZAILEA

"Azken hiru urteetan egindako lanaren fruituak jasotzen hasi gara aurten"

Aitziber Plazaola da Auzoko egitasmoaren dinamizatzailea otsaila ezker. Orduetik hona egindako lanarekin "oso pozik" dago. **Gustura bost hilabetearen egindako lanarekin?**

Bai. Aurretik egondako dinamizatzaileek egindako lana fruituak ematen hasi da. Talde egonkorra sortzeko hazia erein zuten eta aurten hasi gara emaitzak ikusten. Egubakoitzetan talde sendoa daukagu. Bada, orain, emakumeena sendotzeko lan egin beharko dugu.



Zergatik ipini zuten martxan Auzoko egitasmoa?

Topaguneak hainbat herritan martxan ipinitako egitasmoa da. Euskara ezagutzen edo erabiltzen ez duten herritarrek gure ama hizkuntzara hurbiltzea du oinarri.

Nortzuk izan daitezke

auzokide?

Euskara ezagutzen ez duten guztiak, baina ez etorkinak bakarrik. Baliabide edo aukera gutxi izatearren, euskaratik urrun daudenak. Haiengana heldu gurako guneke.



Langileek osatutako abesbatza. | IMANOL SORIANO



Langileak zutik antzokian, fundatzaileei txaloka. | IMANOL SORIANO



Fundatzaileak, oholtzara igota. | IMANOL SORIANO

DEBAGOIENA

Lana gogoz eginda egiten da Ederlan, 50 urtez eta gehiagoz

Urteurreneko ospakizunen barruan erretiratuak eta fundatzaileak omendu dituzte Arrasaten

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Ekitaldi xume, dotore eta, batez ere, hunkagiariarekin, Ederlaneko erretiratu eta fundatzaileak omendu zituzten zapatuan. Mende erdian etenik izan ez duen hobera egiteko grina izan zen ospakizunaren haria. Amaia antzokia bete zuten egungo langileek eta izandakoek, haien artean 200 erretiratu eta 14 fundatzaileak.

Beteranoei, esker beroa

Urteurrenerako bereziki prestatutako bideoan, langile, erretiratu eta egungo zuzendaritzako kideek Ederlanek ekarri duen eraldaketa enpresarial eta sozialaren kontaketa egin zuten. Bideoa eta gero, Mikel Uribetxebarriak, Kontseilu Errektoreko lehendakariak hartu zuen hitza. Hark hartu zuen ekitaldiko unerik hunkigarrienetako baten aurkezpenaren gidaritzza. Hala, oholtzara igoarazi zituen antzokiko lehen

MIKEL URIBETXEARRIA | ERREKTORE KONTSEILUA

"Jende langilearen kultura dago, lan asko eta ganoraz egiten dutenena"

Errektore Kontseiluko lehendakaria da Uribetxebarria. Fundatzaileen dako omenaldian hunkituta egin zuen berba, aitzindarien lana eskertuz. Iragana, oraina eta etorkizuna lotu zituen Uribetxebarriak.

Zer jaso duzu fundatzaileengandik?

Alde profesionaletik laguntza emateko disposizio osoa. Beteranoek elkartasun estilo bat erakutsi didate. Alde sozialeatik, kooperatiba beste enpresetatik zerk egiten gaituen berezi ikasi dut, zerk daukan garrantzia. Lanari beste arrazoi, indar eta gogo batzuk ematen laguntzen dizu.

Eta, langile gazteenei zer esango zenieke?

Besteok aurrekoengandik moduan, eurak ere zabal eta anima daitezela dagokien protagonismoa eta esparrua eskatzera.

Ederlangoa lan astuna bada ere langileak harrapatu egin ditu.

Lan motaren gainetik jende langilearen kultura dago Ederlanen; gogoz egiten du lan jendeak, asko eta ganoraz. Izaera horri garrantzia eta balioa ematen zaio. Gaur hori ospatzen dugu hemen. 50 urteko bidean, era batera ala bestera, lantegia zelan garatu den ikusita, izaera hori garatu den moduaren emaitza dela ikusi dugu. Hortik dator indarra eta gaur erakutsi den poza.

Beste 50 betetzeko moduan, hortaz?



I.S.

Ez dakit Ederlanek beste 50 urte eman behar dituen pentsatu behar ote den. Nik gurako nukeena da beste 50 urte barru jendea ikustea geroa bere esku duela jabetuta, borondatez eta prestutasunez. Erronkak eta etorkizuna eskuetan hartu eta erabakitzeko gaitasun horri eutsi zaiola ikustea gustatuko litzaidake. Bai Ederlan eta baita bailarako kooperatibismoa ere, biak, hala ikusi nahiko nitzuke beste 50 urtetan ere.

lerroetan jesarrita zeuden 14 fundatzaileak, eta haiekin batera Alfonso Gorroño goitia ere igo zen, Ulgorrek Ederlanen lehen urratsetan izan zuen paper garrantzitsuarengatik. Fundatzaileen izenean Leandro Hernandezek egin zuen berba. "Ametsetan ere" ez ei zuten imajinatzen hoge langilek hasitakoa 3.500 kidera haziko zenik. Horretaz "harro" daudela esan zuen guztien izenean. Urribetxebarriak, bere aldetik, nabarmendu zuen hasierako talde horretakoak eredu garriak izateaz gain, "zerbait badira, langileak eta eskuzabalak" direla. Amaia antzokia bete zuten langileak zutitu eta txalo berotan agurtu zituzten beteranoak. Izandakoa eta gaur egun direna estimatuta, etorkizunerako begirada langile gazteenek ekarri zuten. Martin Antxia eta Olatz Olabe bazkide berriak agertokira igota, fundatzaileen lekukoa hartzeko konpromisoa agertu zuten.

Amaitu, ospakizunerako prestatu duten *Ederlantzen* abestia kantatzen amaitu zuten bideoak Youtube-en 4.000 bisita ditu jada. *Ederlandu* aditza asmatu dute lantegiaren filosofia zabaltzeko. Langileek osatutako abesbatzak kantatu zuen. Ostean, eta ospakizuna amaitzeko, bazkaria izan zuten Uarkape pilotalekuan 300 *ederlangile* baino gehiagok.

ARETXABAETA

Debagoieneko txakolin ederra errege izan zen atzoko Aretxabaletako bazkalaurrekoan



Arrasateko Otxia upategiaren saltokia, Durana kalean. | J.B.

J.B. | ARETXABAETA

Txakolina modukorik ez domekako eguzkiari aurre egiteko, eta Debagoienekoa bada, hobe. Hala, atzo, Debagoieneko Jardunaldi Gastronomikoen barruan, Txakolin Eguna ospatu zuten, etxeko ekoizleen ardoak sustatzeko. Murgialdai (Oñati), Otxia (Arrasate) eta Upaingoa (Oñati) upategiek saltokiak ipini zituzten kaleetan eta, aldi berean, Bittor Rodriguez Idiazabal gaztaren batzordeko dastatzaile ofizialarekin gazta gozatu eta baloratze-ko tailerra ere egon zen Herriko Plazan. Eskaintza gastronomikoa osatzeko, Etxezuri, Mendibitzu eta Gomiztegiko gazta ekoizleak ere izan ziren Aretxabaletan, Jakionekoekin batera produktuak erakusten. Eta hori domekako poteorako nahikoa aitzakia ez bazen, herriko hamahiru jatetxe eta tabernatan ere pintxo gastronomiko bereziak jateko aukera egon zen, nahi izanez gero, txakolinez bustita.

ANA HERIZ
MANKOMUNITATEA



"Debagoieneko txakolina oraindik ere ezezaguna da eta sustatu beharra dago. Iaz Antzuolan moduan, aurrean Aretxabaletan egin dugu".

ARITZ GALDOS
MURGIALDAI



"Degaboienean betidanik egon da mahatsa eta txakolina. Gure lana orain horixe da, hain zuzen, lanbide eta produktu horren berreskurapena".

FELIX ETXAGIBEL
OTXIA



"Urte asko daramagu jada txakolina egiten eta Debagoieneko txakolina sustraituz doa. Hemen ere badaukagula ikasi behar dugu".

JOXE MARI ARTZELUS
UPAINGOA



"Txakolin desberdina da bertakoa, karbonikorik gabe eta ekologikoa. Txakolina urteko ardoa dela, baina errez eusten ditu hiru bat urte".

BITTOR RODRIGUEZ
DASTATZAILEA



"Sekulako gaztak utzi dizkigute dastatzerako, bertakoak. Lehen mailako gaztak ditugu hemen, dastatze batetako eskakizunak betetzen dituztenak".

Promociones
Erregetxo Plaza
Bergara



Bergarako hirigune historikoan
63 etxebizitza, libre, tasatu,
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18
LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

GARAIZ ZABILTZA!



Bergarako hirigune historikoan
2, 3 logelako etxebizitzak.

- ✓ Lehenengo mailako materialak
- ✓ Sukatuzko

Etxebizitza **TASATU** eta BOE tarako
zozketan parte hartzeko
izen emate epea zabalik

Azken eguna, 2013ko Uztailak 17, Asteazkena.
UDALETXEAN

- Babes ofizialeko 12 etxebizitza
 - Babes publikoko erregimen tasatuko 13 etxebizitza (garajearekin batera)
- Informazio gehiago:
www.promocioneserregetxoplaza.com
www.bergara.net





Auzoko umeak, beroari aurre egiteko jarri zituzten igerilekuetan. | ARANTZAZU EZKIBEL



Santamainako txaranga auzoko kaleak girotzen. | IMANOL SORIANO



Bazkalondoren aulkiaren jolasean ibili ziren, Miranda txarangak girotuta. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

Paella erraldoiarekin ospatu dituzte jaiak

Santa Marina auzoan jaiak izan dituzte aste bukaeran: nagusi zein gazte batera ibili dira

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Ekintza ugari izan dituzte aurtengo jaietan Santa Marina auzoan. Egubakoitzean hasi zituzten jaiak, modu dibertigarrian, gainera. El Show de la Polaca drag queen taldeak lumaz bete zituen inguruak. Euriak, baina, zertxobait zapuztu zuen ikuski-zuna.

Zapatuan, umeendako puzgarriak jarri zituzten. Umeak gustura ibili ziren salto eta jira; gainera, egiten zuten beroari aurre egiteko bi igerileku txiki izan zituzten.

Paella jan erraldoia

Makatzenako pilotalekuan paella jana izan zuten. Hernanitik etorritako Agustin Sarresek gertatu zuen joan zirendako paella: 4 kilo arroz eta 7 kilo haragi erabili zituen. Horrez gain, entsalada mistoa ere gertatu zuen. Bazkaritan 30 lagun elkartu ziren. Bazkalondoan, pilotalekuan bertan hainbat jolas izan zituzten: Miranda txarangak eskainitako musikarekin, adibidez, aulkiaren jolasean ibili ziren gaztetxoak eta ez hain gaztetxoak. Umorea ez zen falta izan.

Bestalde, Amador Martin e Hijos markako produktu iberikoen dastatzea izan zuten pilotalekuan: txorizoa, solomoa, urdaiazpikoa eta gazta izan zuten dastatzeko, eta baita erosteko ere.

Atzo, domeka, 100 nagusirendako bazkaria gertatzeko ardura izan zuen Agustin Sarresek. Zapatuko menu bera gertatu zuen: entsalada eta paella. Ez da lehenengo aldia Sarres Santa Marinako jaietara etortzen dena. Iaz ere han izan zen: "Giro polita sortzen da, hori da auzoko politena".

Auzoko txaranga

Auzoko jaietan, auzoko txaranga ere bere lekua izan zuen. Zapatu eguerdian kaleak girotu zituen, eta euren eskutik *Cojonudos* pintxoak jateko aukera egon zen Agerre plazan: txorizo eta galeper arrautzadun mokaduak.



ONATI

IMANOL SORIANO

Dantza giro bikaina izan dute

Haur, gazte eta nagusiek, denek gozatu dute aurtengo Trianako jaietan. Beti bezala, *Astotrasto*-rekin ekin zituzten jaiak. Ume mordoak batu ziren *Astotrasto*, txorimalo eta erraldoien bueltan. Luhartz taldeak ere herriko neska-mutikoak dantzan jarri zituen egubakoitzean. Zapatuan, berriz, herriko gazta eta sagardo dastatzea izan zuten; eta atzo, Josu Zubiaren emanaldia.

ONATI

Beste hainbeste egiteko gogoz daude Arranon

Elkartearen eta tabernaren 30. urteurreneko ospakizunekin dabilta azkeneko hilabeteetan

A.E. | ONATI

Mahaiak eta aulkiak kalera atera eta hantxe ospatu zuten Arrano elkartearen eta tabernaren 30. urteurren bazkaria 70 bat oñatiarrek. Pasta entsalada eta okela gisatua izan zuten jateko.

Oroitzapenak eta bitxikeriak

Ezker Abertzalearen inguruan zebilen taldetxo batek sortu zituen Gorgomendi elkarte eta Arrano taberna. Orduan 135

bat bazkide ziren; gaur egun, 150 inguru dira. "Garai latzak, errepresio handikoak" zirela gogora ekarri zuen Iker Loiti kontseiluko kideak. Urte haue-tan herriaren alde lan handia egin dutela nabarmendu zuen. Loitik gogora ekarri nahi izan zuen tabernako lehen zerbitzaria izan zen Alberto Plazaola preso dagoela gaur egun.

Datorren zapatuan bizikleta irteera izango dute, 9:00etan -gaztetxoak 10:30ean-.



Arrano tabernaren aurrealdean bazkaldu zuten zapatuan. | IMANOL SORIANO

Uztaileko jai txikiak, tradizioa berreskuratzetik sortutako festak

- ▶ Garai batean herriko kale guztietan ospatzen zen festa txikiren bat
- ▶ Auzotarrek berreskuratu dituzten azken festak Zerrajerakoak izan dira

IMANOL GALLEGU / J.B. | ARRASATE

Sanjuanekin ez dira Arrasateko uda sasoiko jaiak amaitzen. Jai handien ostean, zenbait kale eta auzok garai bateko jaiak berreskuratzen dihardute.

Moda horretan azkenak Zerrajerako bizilagunak izan dira. Urtetan jaiak galdu eta gero, berriro berreskuratu dute. "Duela 50 urte baino gehiago Zerrajerako langileek aparteago paga abuztuaren 10a inguruan jasotzen zuten, festa antolatzen zuten", adierazi dute egungo jaiak antolatzen dutenek. Laugarren urte honetan, adin tarte zabalagoa hartzen duten ekintzak antolatu arren, txikiek moztortzeak eta nagusiek txapela janzteak beharrezkoa izaten jarraitzen du.

Jai batzorde txikietan beterranoenak Maala eta Ferrereriakoak dira. Maala kaleko bizilagun historiko bati kaleko festan inguruan galdetuta, argi dauka. "Festak asko jaitsi dira, baina Maalakoak Arrasateko jai onenak dira", dio Jose Mari Balantzategi *Aizkorita* famatuak.

Festak noiz hasi ziren ez dakien arren, honakoa dio: "Gazte nintzenetik gogoratzen ditut Errabaleko jaiak". Dena den, bere ohiko aldarte onarekin behin eta berriz errepikatzen du: "Gure su artifizialak Kontxakoak baino hobek dira".



Zerrajerako jaiak gero eta jende gehiago erakartzen dute. Irudian, iazko ospakizuna. | MONIKA MONTERO

Ferrerias kalearekin antzerako zerbait gertatzen da. Urtetan galdutako festak izan ostean, duela 25 urte, 1988. urtean zortzi saltsero elkartu eta ordutik hona jaiok berpizteko lan handia egin dute. Tartean Marga Mercader ibili zen, eta 25 urte geroago bertan jarraitzen du. "Ferrerias oso kale berezia da eta bizilagunak elkartzeko aukera polita da", dio Mercaderrek. Egunean bertan

egiten dituzten ekintzetan jasotzen duten laguntza asko eskertzen duen arren, jaiak antolatzeko "jende gehiagoren beharra" azpimarratzen du. Hala ere, begi-bis-

takoa da hark eta gainontzeko kideek gustura antolatzen dituztela jai txiki horiek.

Batzuk, ahaztuxeagoak

Laguntza falta hori beste festa batzuetan ere igartzen da. Aitziber Uribebarriak Kanpanzar-ko erromeriaren gainbehera aipatzen du: "Lehen, erromeria handia egiten zen, baina azken urteetan asko jaitsi da". Hala ere, ohiturari utsiz, San Inazio egunean Elorrioko eta Arrasateko udalen arteko doke txapelketa tradizionala ez da galdu eta erromeriak bizirik segitzen du.

Uztaileko festekin nahikoa izango dute jaien bat edo beste. Aipatzekoak dira abuztuaren 31n Zarugalde kalean oraintsu berreskuratu dituzten jaiak.



Ferrerias eta Zurgin kantoia, aspaldi.



Maalako jaietan umeendako jolasak betidanik izan dira protagonista.



Kanpanzar-ko bidea ez ezik, jatetxea ere asko aldatu da. ARGAZKILARIAK: VICENTE AZKARATE, MAALAKO JAI BATZORDEA, GOIENA



Santa Marinako jaiak 1977an. Axen Azkarate, lehena sokatik tiraka.

JAIEN EGITARAUUA

ZERRAJERA

UZTAILAK 19

16:30 Margotzera!

17:00 Jolastera!

20:00 Goikobalu abesbatzaren emanaldia.

22:00 Kale afaria (txartelak Ausart eta Errekan).

23:00 Dantzaldia.

MAALA

UZTAILAK 21

12:30 Kaleko hildakoen aldeko meza.

19:00 Kontzertu akustikoa Monte taberna kanpoan.

UZTAILAK 22

08:00 Etxafuegoak.

17:00 Haur jolasak.

19:00 Alardea txistulariekin eta txikiteoa.

21:00 Kale afaria.

22:00 Dantzaldia.

23:00 Su artifizialak.

FERRERIAS

UZTAILAK 26

08:00 Etxafuegoak.

12:00 Txistularien kalejira.

17:00 Haur jolasak eta txokolate-jana.

19:00 Erraldioen korpartsa txikia.

19:00 Meza parrokiari.

21:00 Kale afaria (Txartelak Tamayon).

23:00 Kaixo taldearekin dantzaldia.

KANPANZAR

UZTAILAK 31

Goizean Txirindularitza proba, trikitaliak eta lancha. Gero, bazkaria.

Arratsaldean Doke txapelketa eta erromeria.



Lantalde ezberdinetako kideak, Udaleko ordezkariak eta herritarrak elkartu ziren egueneko saio irekian. | JOKIN BEREZIARTUA

Azoka Plaza biziberritzeko plana aurrera doa, elkarlana oinarri

Bigarren fasean egindako lana azaltzeko saio irekia egin zuten eguenean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bagarak sustatu eta Arrasateko hainbat eragilek babesten duten GÜreztatu egitasmoak edo Azoka Plaza biziberritzeko ekimenak urratsak ematen jarraitzen du. Bigarren fasean zehar lantalde ezberdinetan egin den lana azaldu eta aurrera begira dituzten erronken berri emateko saio irekia egin zuten joan den eguenean, Azoka Plazan bertan.

Lanen banaketa

Ekimenaren sustatzaileek fase bakoitza ikasturtearen dinamika-ekin lotu gura dute. Hau da,

lantalde bakoitza irailetik uztailera bitartean elkartzea. Hauexek dira egun prozesuan modu aktiboan parte hartzen diharduten lantaldeak: Jolasgunea, Kultura eta Ostalaritza, Nekazaritza, Denda, Diseinu arkitektonikoa, Artisautza eta Kudeaketa ereduaren lantaldea.

Lanak banatuta daude, dibertsifikatuta, baina guztien arteko elkarlana ezinbestekoa da proiektuak aurrera egin dezan. Horixe izan zen saio irekiaren helburuetako bat. Saioaren ostean, Bagarako ordezkariak diseinu arkitektonikoa lantzen diharduten adituen

lana aipatu zuten bereziki: "Lantalde guztiak dira ezinbestekoak eta nor bere esparruan da aditua. Hala ere, nabarmentzekoa da diseinu arkitektonikoaren lantaldearen barruan arkitektoek boluntario egiten diharduten lana".

Saio irekian proposamen batzuk luzatu zituzten etorkizuneko azokaren gainean: jarduera ekonomikoak lehentasuna izatea –baserriarrak oinarritzko zutabe izanda–, obrak faseka egitea ohiko jarduna ahalik eta gutxien oztopatzeko, espazio moldagarriak jartzea eta irisgarritasuna bermatzea, besteak beste.

Temperatura igoerarekin batera, jendez bete dira Musakolako igerilekuak

Hamakak alokatzeko zerbitzua martxan dago: egun osorako zerbitzua 3,5 euro; egun erdirako, 2,5 euro



Eguraldi onak jende asko erakarri du Musakolako igerilekuetara. | AMAIA TXINTXURRETA

J.B. | ARRASATE

Kosta zaion arren, hainbat egunez jarraian izan dugu eguzkia lagun. Musakolako igerilekuetako Aintzane Arizmendi soroslearen arabera, badira bi aste jendea animatzen hasi zenetik eta azken egunotan igerilekuak jendez lepo egon direla dio: "Asteon [joan den astean] guztiok ari gara gozatzetan". Haur eta gaztetxoak oporetan daudenez, eguraldi ona egiten badu plan aukeratuenetako bat izaten da igerilekura joatearena. Hala ere, Arizmendik dioenez, gaztetxoak arratsaldeen joaten dira batez ere: "Goizean jende nagusi gehiago egoten da eta arratsalderako gazte eta familia gehiago dator".

Hamakak alokatzeko aukera

Joan den eguaztena ezker, gainera, zerbitzu berri dago martxan: hamakak alokatzeko zerbitzua. Belarretan ipiniko dituzte hamakok; egun osorako alokatu nahi bada hiru euro eta erdi ordaindu beharko da, eta egun erdiz alokatu nahi bada, berriz, bi euro eta erdi.

Mondrak Ohiko Batzar Orokorra egingo du etzi Kulturaten, kirol arloa zein ekonomikoa ardatz

Mondrak Ohiko Batzar Orokorra egingo du etzi, hilak 17, Kulturaten. Lehen deialdia 18:30ean izango da eta bigarrena, berriz, 19:00etan. Landuko diren gaien artean, honakoak: presidenteei ongi-etorria; azken aktaren onarpena; 2012-2013 denboraldiko kirol arloaren balorazioa eta diru-kontuen azalpena; 2013-2014 denboraldirako aurrekontuaren proposamena eta onarpena; denboraldi berrirako kirol helburuak azaltzea, 100. urteurrenaren gaineko zenbait xehetasun ematea; eta klubeko zuzendari-tzarako hautagai berriak egon ezker, bozketa egitea. Galdera eta eskaerendako tartea egongo da amaieran.

Iturbide egoitzan erizain koordinatzaile moduan lan egiteko hautaketa prozesua ireki du Udalak

Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak ekainaren 21eko bileran onartu zituen Iturbide egoitzako erizain koordinatzaile bat bitarteko izaeraz izendatzeko egingo den hautaketa prozesuaren oinarriak. Hautaketa prozesuan parte hartu nahi duten herritarrek gaur izango dute izena emateko azken aukera. Izan ere, gaur amaitzen da prozesurako izen-emate epea. Informazio gehiagorako, BAZera (943 25 20 00) edo Udaleko webgunera jo: <http://www.arrasate-mondragon.org>.

Bigarren eskuko euskarazko liburu, CD eta DVDak jasoko ditu Zahar-Berrik, irailean azoka egiteko

Diru-laguntzen "murrizketa etengabeen" ondorioz, Zahar-Berri mintzapraktika programako kideek finantziaziarako ekintza osagarriak egiten dihardute. Hala, aurten ere euskarazko bigarren eskuko CD, DVD eta liburuen azoka egingo dute. AEDren Literaturajauziak aprobetxatuko dituzte, irailaren 23tik 26ra: "Soberan dituzuen euskarazko liburuak, CDak eta DVDak eskertuko genituzke. Irailaren 19a arte duzue aukera material hori AEDra ekartzeko. Bestela, materiala jasotzera pasako gara", diote.

Arrasateko Sortuk Herri Batzarra egingo du gaur Kulturateko areto nagusian, 18:30etik 20:00etara

Arrasateko Sortuk Herri Batzarra egingo du gaur. Kulturateko areto nagusira deitu dituzte herritarrak, 18:30etik 20:00etara. Bilera irekirako deian diotenez, "azken hilabeteotan Euskal Herriaren eta batez ere gure eskualdean protagonismo handia hartzen ari den hondakinen kudeaketaren gaiaz jardungo dugu". Sortuko ordezkariak deia egin diete herritarrei: "Parte hartze-za gonbidatu nahi zaituztegu".

NIRE USTEZ



ANDER ETXEBERRIA

Ikurrak

A tzo bete ziren 119 urte lehen aldiz Ikurrina kalera irten zela. Bilbon izan zen, *Euskeldun Batzokija* elkartearen bakoian. Nekez imajinatuko zuten Arana anaiek 2013an mundu guztiko egunkarietan azalduko zela beste eraikin baten fatxadetan (ez) agertzeagatik. Egundokoa izan zen Iruñekoa: baketsua, kalkulaturakoa eta deigarria oso.

Zaila izango zuten ere sinestea Senyerak Ikurrinari hainbat bizikletako alde hartuko zionik, gaur egun den bezala. Ez da biak tandemean doazela edo bata bestearen bidez baliatzen dela. Ez, bakoitza bere aldetik doa, ohi

dutenez. Eta oraingoan katalanak, erlatiboki, oso gertu daude bozketa erabakigarritik. Instituzioak eta herritarrak –eta alderantziz– aurrera. Anekdotak baino gehiago da Barçaren bigarren kamiseta senyera bat izatea: "Herriaren zerbitzurako ekintza", Artur Masen esanetan.

Itzelezkoa da erabakitze eskubideak –beste mota bateko aldarrikapen batzuekin batera– zenbat lagun batzen duen, bertan jaiotakoak zein kanpokoak. Bartzelonan milioiak izan ziren 2010eko uztailako manifestazioan eta azken Diadan. Neurri handi batean faktore ekonomikoa da, kulturala baino, batzen dituen eta bultzatzen dituen. Hortik ikasi beharko dugu zer bait. Zorionak bie!

"Egundokoa izan zen Iruñekoa; deigarria oso"

Aitonetako lorategia egokitzen ari dira probetxu handiagoa ateratzeko

Belarra kendu eta hormigoia bota dute lorategiaren zati baten, erabiltzaileak erosoago ibiltzeko asmoz

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Aitonetako lorategia egokitzen ari dira. Sarreraren eskuma aldean dagoen lorategi zatia ari dira egokitzen, probetxu handiagoa ateratzeko asmoz. San Joxepe elkarteak egindako eskariari erantzunez ari da Udaleko brigada gunea txukuntzen. "Oso gutxi erabiltzen zen", esan du Iñaki Zabala elkarteak lehendakariak; "sustraiak kanporaino zituen gerezizondo zahar bat zegoen, edozein erori eta min hartzeko moduan, mahai zahar bat... Uda partean, bereziki, erabilpen handiago eman nahi genion lorategi zati horri".

Udal brigadako langileak ari dira lanok egiten. Apurka-apurka dihardute, herriko beste gune batzuetan egiten ari diren lanekin txandakatuz. Hala eta guztiz ere, asteen lanak bukatuko dituztela aurreratu dute Udal brigadatik.

Zuhaitz berria jarriko dute

Erabat hustu dute lorategia eta belarraren ordezkari hormigoizko zorua jarri dute. Lokatza sortzea ekidin nahi dute eta inork irrist egiten eta erortzea. Dagoeneko amaituta dago lan hori. Horrekin



Udaleko lorezainak txukuntze lanak egiten. | MONIKA BELASTEGI

baterra, lorategia inguratzen duen heskaia txukundu egingo dute Udaleko lorezainek eta negu partera zuhaitz berria ere landatuko dutela aurreratu du Udaleko lorezainen buruak.

Horren harira, gehitu du oraindik ze motakoa izango den

erabakitzeko dagoen arren, "gerizpea emango duen zuhaitza" izango dela.

Lekua egokitzeko lanak amaitu ostean, tabernako arduradunek mahaiak, aulkiak eta eguzkitakoak jartzeko asmoa dutela ere aurreratu dute.

Herriko industria, Udalaren egutegian protagonista

M.B. | BERGARA

Udalak 2014an aterako duen egutegirako argazkiak aurkezteko epea zabalik dago. Herriko industria da gaia –langileak, prozesuak, eraikinak, tresneria– eta gaur egungoa zein antzinakoa izan daitezke. Irailaren 25a izango da lanak aurkezteko azken eguna.

Argazkiaren tamainari dagozkionez, 20x30 cm eta 300 puntu

pulgadako izango beharko ditu eta JPG formatuko artxibo digitala izan beharko du. Lanak CD batean aurkeztuko dira eta Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira.

Ordaindu egingo dira

Egutegian erabiltzeko aukeraturako argazkiak ordaindu egingo dira. Horrez gain, Udal Artxibategian jasota geldituko dira eta

Udalak erabiltzeko aukera izango du, betiere, egilea aipatuta.

Argazkiekin lotutako edozein baimen lortu behar izanez gero, horiek eskuratzea argazkilararen kontu izango da eta Udalak ulertuko du argazkiak aurkezten dituenak lortuak dituela baime-nok. Euskara batzordeak izendatutako taldeak aukeraturako dituzte argazkiak.



Pedro Rico, futbol taldeko presidentea.

Pedro Rico | Bergara Kirol Elkarteak futbol taldeko presidentea

"Urte gogorra izan da aurtengoa, ea hobe dezakegun"

Urteko balantzea erdipurdikoa izanda, parte-hartze handiagoa eskatzen du elkarteak

NAIARA URIARTE | BERGARA

Eguaztenean egin zuen Bergara Kirol Elkarteak urteko batzar orokorra, kultura etxean. Bertan, urteko kirol eta ekonomia balantzea egiteaz gain, proiektu berriak eta hurrengo urtera begira egindako proposamena aurkeztu zituzten. Pedro Rico futboleko presidentearekin izan gara, batzarraren nondik norakoak jakiteko.

Zein izan da urteko ekonomia balantzea?

Lau kirol ezberdin ditugu geurean: futbola, saskibaloia, eskubaloia eta pilota. Eta bakoitzean, ekonomia balantzea ezberdina izan da. Orokorrean, galerak izan ditugu, bai futboleko, eta baita pilotan ere. Saskibaloian eta eskubaloian, berriz, antzera mantendu gara.

Eta kirol balantzea?

Erdipurdikoa izan da. Futboleko, nahiko emaitza kaxkarra lortu dugu. Hasieran, taldea nahiko erlaxatu aritu zen, horrek eragina izan du, eta Ohorezko Mailan jokaturako du datorren urtean. Saskibaloian ere emaitzak ez dira onak izan. Senior mailan aritu dira, eta aurtengo jaitzi egin dira. Eskubaloian, berriz, ongi joan da urtea. Pilotan izan dugu denboraldi onena. Izan ere, Beñat munduko irabazlea izan da eta txapeldu-nordeak ere izan gara. Hala, emaitzak onak izan dira.

Zein finantzaketa baliabide dituzue?

Azkenengo hiru urteotan kuotak igo ditugu; baina aurtengo, krisiaren ondorioz, mantendu egin ditugu. Gainera, murrizketak direla eta, dirulaguntza gutxi izan ditugu. Honi guztiari irtenbidea emateko, elkarteak askotariko ekintzak egin behar ditu dirua lortzeko. Batek, gurasoek Gabonetako Loteria saltzen dute. Lortutako

diruarekin Gabonetako otarra egiten da. Bestetik, errifak saltzen ditugu. Elkarteak tabernak lortzen duen dirua ere badago. Azken finean, galerei aurre egiteko, lan egin beharra dago.

Berrikuntzarik?

Berrikuntza nabarmena futbol entrenatzaile berria da. Orain arte, Arrasateko Mekak gidatu du taldea. Baina hurrengo denboraldian, Elorrioko Aitorrek hartuko du kargua.

Hurrengo denboraldiari begira zer lortu nahi duzue?

Futboleko, galdu dugun kategoria berreskuratu behar dugu. Nahiko zaila da. Lan handia egin beharra dago; izan ere, kostaldeko taldeak oso onak dira: erosteko ahalmen handiagoa dute eta jendea gehiago konprometitzen da.

Zein da gaurko bileraren balorazio orokorra?

Jende gutxi etorri da. 600 bazkideetatik, hogeit hamar bat kidetara ez gara iritsi. Aipatzekoa da aurtengo berandu antolatutako dugula, eta horrek eragin zuzen izan du asistentzia mailan. Baina urtetik urtera kopurua txikituz doa, eta egoera honi irtenbidea topatu behar diogu. Bazkideek arduraz handiagoa hartu beharko lukete.

Zein da zure mezua?

Bazkideei inplikazio handiagoa eskatuko nieke; eta herritarrak gonbidatu bazkide egitera. Azkenik, herriko komertzioei esan nahi diet gurekin gehiago kolaboratzeko, publizitate beharra daukagu eta.

"Ekitaldi ugari egiten ditugu dirua lortzeko eta aurrera egiteko"

Orain bizikleta hobeto ezagutzen dute

Lokatza Ziklismo Eskolak eta gaztetxeak antolatutako bizikleta tailer herrikoian dozena bat lagunek hartu zuten parte egunean. Iñigo Larrañaga Lokatzako kideak bizikleta muntatzen eta oinarriko konponketak egiten erakutsi zien.



MONIKA BELASTEGI

Josune Odriozola | Igerilaria

"Paralinpiarra izatearren ez dut bazterketarik jasan"

Josune Odriozola oñatiarrak bost domina irabazi zituen Kordoban jokaturako Espainiako igeriketa txapelketan: urrezko hiru domina eta zilarrezko bi

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Bost dominarekin itzuli zen Josune Odriozola (Oñati, 1996) Kordobatik: urrezko hiru eta zilarrezko bi. Banaka lortutako sariez gain, taldeka hirugarren sailkatu zen Donostiako Konporta taldeko kideekin.

Bost domina gehiago zure bildumarako. Zorionak!

Eskerrik asko. Azkenak Espainiako txapelketakoak dira. Urrezkoak 50 eta 100 metroko bizkar estiloan eta 200 metroko crawl estiloan irabazi nituen; eta zilarrezkoak 100 eta 400 metroko crawl estiloan. Taldeka brontzea lortu genuen.

Bizkar eta crawl modalitateak dituzu gustukoen?

Bai. Txapelketa batzuetan modalitatea eta luzera aldatzen ditut, baina, halako probatarako gutxieneko markak behar direnez, normalean, bizkar eta crawl estiloak egiten ditut.

Aloña Mendiko kide zara, eta baita Donostiako Konportakoa ere.

Aloñarekin hasi nintzen txikitari. Egun, txapelketetan Konportarekin parte hartzen dut. Paralinpiarren taldea da.

Baina entrenamenduak Oñatin egiten dituzu?

Bai, Aloña Mendiko gainerako kideekin. Xabier Infante Artzak antolatzen dizkigu entrenamenduak. Zubikoako igerilekua beteta egoten da, eta goizean goiz egiten ditugu entrenamenduak.

3 urterekin hasi zinen igeriketan. Zer ematen dizu?

Ume guztien moduan, igeriketa ikastaroetan hasi nintzen. Harra-patu egin ninduen. Orduetik hona dihardut igeriketan. Lasaitasuna



Josune Odriozola, Kordoban lortutako hiru dominekin. | MIREIA BIKUÑA

"Igeriketarekin erlaxatu eta lasaitu egiten naiz; gogoko dut igeri egitea"

ematen dit. Txapelketak prestatzeko gogor entrenatu arren, erlaxatu egiten naiz igerilekuan. Gogoko dut igeriketa. Eta jendea ezagutzeko aukera eman dit. Lagun

asko egin ditut txapelketetan.

Kirolegokituari, paralinpiarrari, behar besteko garrantzia ematen zaio?

Bai. Igeriketan, behintzat, txapelketa guztiak batera jokatzeko dira: paralinpiarrek eta besteak. Nik ez dut bazterketarik jasan paralinpiarra izatearren.

Non ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Oraingoz, igeri egiten jarraitu gura dut. Kanpora ikastera joaten banaiz, ikusiko dut zer egin igeriketarekin. Beste aukera bat igeriketako begirale lanak egitea izan daiteke.

Hiru komun gehiago egokituko dituzte gaztelekuan

Sotoan, kuboan eta informatika gelaren ondoan ipiniko dituzte komunak, abuztuan

M.B. | OÑATI

Gaztelekuko erabiltzaile kopurua handitu den neurrian, hango zerbitzuak ere handitu beharra ikusi du Udalak. Hori horrela, hiru komun gehiago egokituko dituzte gaztelekuan: hain justu ere, sotoan, kuboan eta informatika gelaren alboan ipiniko dute komun bana.

Udalak Itziar Zelaia arkitektoari eskatu dio hiru komunak egokitze proiektua.

Lanak egiteko data zehatzik ez dagoen arren, uda garaiko oporrak aprobetxatu gura dituzte. Gaztelekua zabalik dago abuztuan, baina erabiltzaile kopurua txikitu egiten da. Eguraldi onarekin Usakora edo igerilekura

joaten dira gazteak. Hori horrela, zerbitzua zabalik egon arren, lanak abuztuan egingo dituzte.

Goiko solairuan

Gaztelekuko sotoan 7 urte arteko umeak ibiltzen dira eta 8-12 urte artekoak kuboan elkartzen dira. Bi gune horiek zabalik daude astegunetan eta aste bukaeretan. Hori horrela, erabiltzaile kopurua handitu egin da. Adin tarte bakoitzerako proposak diren jokoak dituzte, baina komunik ez.

Gaztelekuko goiko solairuan ere ez dago komunik. Informatika gelaren alboan egokituko dute bat, hango erabiltzaileek erabil dezaten.

Herri Eguneko artisau azokan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago hilaren 24ra arte

Urriaren 5ean egingo den Herri Eguneko artisau azokarako deialdi publikoa egin du Udalak; jarduera horretan ari diren guztiei postua jartzeko aukera eman die. Herriko artisautzat zortzi postu gorde dituzte, baldin eta unibertsitateko klaustroa bete egiten bada. Aukeraketa egiteko beharra egongo balitz, jarraituko diren irizpideak ere zehaztu ditu. Interesatuak kultura etxean eman dezakete izena, edo, bestela, Internetez, www.oinati.eu atarian, hilaren 24ra arte.

50 urtetik gorako etxeek derrigorrezko ikuskaritza tekniko pasatu beharko dute 2015a baino lehen

Eusko Jaurlaritzak iaz abenduan adostutako dekretuaren arabera, 50 urtetik gorako etxeek derrigorrezko ikuskaritza tekniko pasatu beharko dute 2015a baino lehen. Oñatin 230 etxe daude baldintza hori betetzen dutenak. Hori etatik, 130ek aurten bertan egin beharko dute ikuskaritza. Zortzi-hamar etxebizitzako eraikinaren ikuskaritza 1.000 euro inguru balio du. Jaurlaritzak dirulaguntzak ematen ditu.

Ingelesa ikasten dabilta ikastolako neska-mutikoak

Ingelesko udalekuan buru-belarri dabilta Txantxiku Ikastolako neska-mutikoak. Enjoy English programarekin. Haur eta Lehen Hezkuntzako 58 neska-mutikok dihardute Erresuma Batuko irakasleekin. Programaren helburu nagusia ingelesa ikuspegi ludikotik lantzea da. Hilaren 26an egingo dute azken jaialdia.



TXANTXIKU IKASTOLA

ESKORIATZA



Eguenean agerraldia egin zuten Hondakinen Mahaia osatzen duten hainbat ordezkari. | AMAIA TXINTXURRETA

Hondakinen gaineko informazio kanpaina jarri dute martxan

Erakusketa ibiltaria, tailerra eta hitzaldi bi izango dira hilaren 24ra bitartean

M.B. | ARETXABALETA

Eskoriatzan osatu berri den Hondakinen Mahaia egin duen hausnarketako bat gizaratean "informazio gabezia itzela" dagoela da. Horregatik, eta egun hiri hondakinek sortzen duten arazoa kale-

ratze aldera, informazio kanpaina abiaraziko du. Egun arratsaldean eskainitako prentsaurrekoak eman zuten kanpaina horren berri.

Batetik, *Hondakinen problematika* lelopean Ibarraundin dagoen erakusketa aurkeztu zuten.

Uztailaren 24ra bitartean, astelehenetik eguaztena, museoa bisitatu ahal izango da hori, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Eguenean eta egubakoitzean, ostera, erakusketa kale-atera aterako dute; esaterako, egu-

bakoitzean, Gorosarri plazan jarriko dute azokara hurbiltzen direnak ikusi ahal izateko.

Urtean 350 kilo

Erakusketa bost panelez osatuta dago. Batean, hondakinen eta zaborraren arteko ezberdintasunez egiten da berba; bestean, jakinarazten da eskoriatzar bakoitzak urteko 350 kilo hiri hondakin sortzen dituela, eta egun erabiltzen den sistema azaltzen da; hirugarrenean, hondakinen tratamenduaz informatzen da; eta laugarrenean, zabortegi motez. Hain justu, ohiko, inerte, hondakin toxiko eta arriskutsu eta errauskagailuen inguruko informazioa ematen da; azkenik, Europako Ingurumen politikaren berri ere jasotzen da paneletan. Horretan gogorarazten da 2016an ohiko zabortegiak itxi egin beharko direla, eta geratzen den irtenbideaz hitz egiten da.

Erabilitako olioarekin xaboiak

Erakusketa aparte, bihar, martitzena, erabilitako olioarekin xaboiak nola egiten diren ikasteko aukera izango da Idurre Arangurenaren eskutik. 20:00etarako jarri dute hitzordua, Ibarraundin. Eta etzi, eguaztena, *Transition Ereduan* aditua den Iñigo Iñurategik berbaldea eskainiko du toki berean, 19:00etan. Azkenik, 23an, Debagoieneko informatzaileek hitzaldia emango dute museoa, *Eskoriatzako hondakinekin, zer?* izenburupean: 19:30ean, euskaraz; eta 20:00etan, gazteleraz.

Umeendako igeriketa ikastaroa hasiko da gaur

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzan umeendako igeriketa ikastaro trinkoa antolatuko dute datozen egunotarako. Kirol Zerbitzutik jakinarazi dutenez, 4 eta 9 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago, eta eskolak gaurtik, astelehena, hilaren 26ra bitartean izango dira. Interesatuak azkar ibili behar dute, gaur goizera arte luzatu dute eta izen-emate epea.

Bi mailatan banatuta dago ikastaroa: batetik, 4 eta 6 urte artekoendako hastapen ikastaroa egingo dute, 17:15etik 17:45era; eta bestetik, 7 eta 9 urte bitartekoendako hobekuntza saioak, 17:45etik 18:15era. Talde bakoitza osatzeko, gutxienez, zortzi umek eman beharko dute izena.

25 edo 30 euro

Prezioari dagokionez, kiroldegiko bazkide direnek 25 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, aldiz, 30 euro. Informazio gehiago gura dutenek *kirolak@eskoriatza.net* postara idatz dezakete, edo, bestela, 943 71 53 28 telefono zenbakira deitu.

ARETXABALETA

Trapu Zaharrak taldearen 'Gezurtiak' etzi, Herriko Plazan

M.B. | ARETXABALETA

Kale antzerkiaren azken emaldia izango da etzi, eguaztena, Aretxabaletan. Trapu Zaharrak antzerki konpainiak *Gezurtiak* umorezko antzezlan eskainiko du, 19:00etan, Herriko Plazan. Gainerako ikuskizunetan beza-

la, hau ere debalde da. Birgaitze prozesuan dagoen gizon batek 8 urte igaro ondoren bere auzora bueltatzea erabaki du. Iristerakoan, bizilagunen espero gabeko ukoa aurkitu du; imajina ezinezko egoera paregabean izango dira ikus-entzuleak.

Trapu Zaharrak taldearen *Gezurtiak* lanaren pasartea. | TRAPU ZAHARRAK

Asteburuan izango diren Portasolgo jaietarako laguntza ekonomiko eskatu dute antolatzaileek

Egubakoitzetik domekara bitartean izango dira Aretxabaletak Portasolgo jaiak aurten, eta horien antolatzaileek laguntza ekonomiko eskatu diete bertako bizilagunei. Hala, etxeetan gutun-azal batzuk banatzen dabilta egunotan, ekarpenak jaso ahal izateko. Horrez gainera, auzoko taberna eta dendetan zozketa txartelak eta zapiak ipiniko dituzte asteon salgai. Antolatzaileek eskerrak eman gura izan dizkiete, aurretik, guztiei.

Bihar arte eman daiteke izena zapatuko Villabuenako Euskararen Egunerako

Loramendi elkarteak Arabako Errioxara egun osoko irteera antolatu du hilaren 20rako; haurren txartelak 15 eurotan daude salgai eta nagusienak, 25 eurotan

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletak Loramendi euskara elkarteak Arabako Errioxara irteera antolatu du zapatuko, uztailak 20; hain justu, Xirmendu euskara elkarteak, beste urte batez, antolatutako Villabuenako Euskararen Egunerako. Horretan parte hartzeko interesa dutenek bihar, martitzena, arte dute horretan izena emateko aukera. Txartelak Loramendik udaletxe zaharrean duen egoitzan daude salgai; haurrenak 15 eurotan eta nagusienak 25 eurotan. Loramenditik jakinarazi dute prezio horren barruan sartuta daudela autobusa eta herri bazkaria.

Goizean ibilaldia

Egun osoko irteera gertatu dute. Goizeko bederatzieta autobusa irtengo da Aretxabaletatik; ordu eta erdi geroago, haur eta helduendako mahasti artean dagoen hilerri laikora ibilaldia hasiko da; hain justu, San Andresko harrien lakuetara joango dira, lehenik, eta jarraian, Ibaolaren harrietan hamaiketako egingo dute. Besteak beste, dantzak, tailerrak, buruhandiak eta bertako



Ibaolaren harriak bisitatuko dituzte zapatuan. | IBAOLAREN HARRIAK

animaliak eta fauna ikusteko aukera izango da han.

Kalejira eta herri bazkaria

Eguerdi partean, 13:00etan, herri itzuliko dira Urkabustaitzeko zantantzara eta Lantziegoko trikitilariak lagunduta, eta kalejira

egingo dute tabernetan. 14:30ean, ostera, herri bazkaria hasiko da. Bazkaldu ostean, igerilekua izango dute etxeko txikiak eta helduek, berriz, dantzaldia Patxi Perezekin. Azkenik, 20:00etan autobusa irtengo da Aretxabaleta bueltatzeko.



Kiroldegiko kantxara eraman dituzte, azkenean, hiru ur-putzuak. | LARRAITZ ZEBERIO



Mutikoak uretan. | LZ.



Neska taldea, egunean, Maalako parkean eguzkitan. | LZ.

ELGETA

Ur-putzu handiagoa ekarri dute aurten, eta Maalatik kiroldegira eraman dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ur-putzuak uztaileko klasikoak dira Elgetan, eta aurten ere ipini dituzte. Eguzki arratsaldean plastikozko hiru igerileku zabaldu zituzten Maala parkean, eta 16:00etarako gertu ziren umeen gozamenerako. Aurten, ordea, ezustekoa egon da igerileku handienarekin.

Aurrekoak apurtu egin ziren, eta erosi berriak dira hiru ur-putzuak. Igerileku handia aurre-

koa baino handiagoa da, eta, egunean ikusi zenez, ezin da Maala parkean ipini. Txikia, baina desnibela du lurzorua, eta igerilekua bete ahala gainek egiten du urak. Hala, bariku goizean kiroldegiko kantxara eraman zituzten hiru igerilekuak.

Martitzenera arte

Bi egun egin dituzte ur-putzuek zabalik, eta gaur eta bihar ere

erabilgarri egongo dira kiroldegiko kantxan, 16:00etatik 19:00etara. Antolatzaileek gogorarazten dute gurasoen ardura dela umeak zaintzea.

Gaur, bits festa

Ondo baino hobeto aprobetxatuko dituzte ur-putzuok Elgetan. Gaurko, gainera, bits festa iragarri du Udalak, 18:00etarako. Kiroldegiko kantxan egingo dute.

ANTZUOLA

Hondakinen bilketan eta garraioan egokitzapenak, jaiak direla-eta

Herriko hainbat gunetan autoak aparkatzea debekatuta izango da jaiak iraun artean

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Datorren asteburuan Antzuolako jaiak direla eta, hainbat aldaketa egongo dira udal zerbitzu batzuetan; hain justu ere, hondakinen bilketa zerbitzuan eta autobus zerbitzuan. Aldaketa horiez gainera, udalerriko hainbat lekutan ezin izango dira autoak aparkatu.

Hondakinen bilketa

Hondainei dagokienez, hilaren 19an, 20an eta 21ean goizez atara beharko dira hondakinak zintzilikarioetara, 12:00etatik 14:00etara: 19an ontziak, 20an organikoa eta 21ean errefusa. Gainera, San Josepeko larrialdi-gunean organikoarendako eta ontzi arinendako edukiontzia ipiniko dituz-

te. Bestalde, jaietan ez dituzte etxean pilotutako traste zaharrak batuko.

Autobusak, Antiguan

Bestalde, jaiak irauten duten bitartean, herriko hainbat gunetan ezin izango da autorik aparkatu: Herriko Plazan, eskola aurrealdean eta Kalebarrengo 1. zenbakiaren aurrean, hilaren 16tik 23ra; eta eskolako patioaren aurrealdean, hilaren 17tik 23ra.

Azkenik, Pesako autobus zerbitzuan ere aldaketak egongo dira: hilaren 17tik aurrera Zumarraga eta Bergarako autobusak Antiguan geratuko dira.

ARAMAIO

Papargorri abesbatza, "oso pozik" ikasturteak eman duenarekin

Ekainaren 28an kultur etxean eskainitako kontzertuaren ostean hartu zituzten oporrak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Ekain amaieran hartu zituzten oporrak Papargorri abesbatzako hiru taldeek. Azken kontzertua ekainaren 28an kultur etxean eskainitakoa izan zen: "Ez zen jende larregi egon, asko ez ziren enteratu. Abeslariak, baina, ederto ibili ziren. Helduen taldeko abeslariak bereziki, oso maila altua erakutsi zuten. Zenbait abestitan perfekzioa hurbildu ziren", adierazi digu Blanca Mendiak koordinatzaileak.

Hiru taldek osatzen dute Papargorri abesbatza gaur egun: 7 eta 10 urte arteko umeen, 11 eta 16 urte arteko gaztetxoek eta 16 urtetik gorakoek. Ikasturtea agurtzeko kontzertuan

umeek eta helduek abestu zuten, Eli Izagirre eta Arantza Uriarteren aginduetara, hurrenez hurren. Erdiko taldekoek ez zuten abestu, "azken orduko arazoengatik".

Irailean, buelta entseatzera

Mendialdua pozik dago ikasturteak eman duenarekin: "Orokorrean oso ondo joan da ikasturtea. Egia da saioen baterako jende faltarekin ibili garela, baina hutsune horiek datorren ikasturtean betetzea espero dugu". Oporretako geldialdi luzearen ostean, hiru taldeak irailean hasiko dira entseatzera: "Dagoneko lotu dugu kontzerturen bat edo beste irailerako eta urriarako".



Papargorriko talde helduena, ekainaren 28ko kontzertuan. | AIZPEA AJURIAGERRA

LEINTZ GATZAGA

Basoko auzo-egurraren aprobetxamendurako deia

Zozketarako izen-emate epea zabaldu dute; uztailaren 29a da azkeneko eguna

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Onura publikoko mendietatik datorren egurra aprobetxatu ahal izateko deialdia egin du Leintz Gatzagako Udalak. Hain justu ere, egur hori eskuratu ahal izateko zozketa egingo dute, eta zozketarako izen-emate epea da orain zabaldu dutena: uztailaren 29a aurretik eman beharra dago izena, udaletxera joanda edo bertara deituta (943 71 47 46).

Behin izen-emate epea bukatuta, jasotako eskaera guztiekin zozketa publikoa egingo dute. Oraindik zehazteke dute eguna. Hala egiten dutenean, jakinaraziko dute.

Baldintzak eta betebeharrak

Auzo-egurraren aprobetxamendurako baldintzen arabera, Leintz Gatzagako etxe bakoitzak

lote bakar bat jaso ahalko du, eta eskaera egiteko udalerrian erroldatuta egon beharra dago. Behin eskaerak jasota, Mendi-zaintza batzordeko mahaikide delegatuek, basozainarekin batera, egur loteak zehaztuko dituzte.

Hori egin ostean, egur lotea osatuko duen egurra moztea adjudikatzaileen ardura izango da; mozketak hori lurretik ahal denik eta hurbilen egin beharko da; lotea bere osotasunean aprobetxatu beharko da eta, aprobetxamendua bukatu ostean, mendia garbi laga beharko da. Bestalde, lotearen adjudikatzaileak ezin izango du, inola ere, materialaren trukaketa, salmenta edo lagapenik egin.

Eta, besteak beste, egur horren garraioa ere adjudikatzailearen ardura izango da.

Goiena Klubeko uztaileko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



Arrasateko hipermerkatua

 zurekin

E-Book

E-book irakurgailu bat!

Parte hartu sariaren izena:
 E-Book



Otarra
DEBAGOIENEN BASERRI SAREri esker
baserriko produktuez osaturiko 4 otar
zozketatuko ditugu
 Parte hartzeko sariaren izena:
 Baserrisarea



ARRIKRUTZ
 oñatiko kobak

Sarrerak
Arrikruz kobak bisitatzeko,
6 sarrera zozketatuko ditugu.
 Parte hartzeko sariaren izena:
 Arrikruz



 **PAMIELA**
 argitaletxea

Liburu sorta
Altxor bat aurkitu dugu eta
Txikiak zaretenean umeentzako
hiru liburu sorta.
 Parte hartzeko sariaren izena:
 Liburu sorta



 **PAMIELA**
 argitaletxea

DVD-Liburua
Bernardo Atxaga eta Jabier Muguruzaren
Paradisua eta katuak errezitaldiaren bi
DVD-liburu.
 Parte hartzeko sariaren izena:
 Atxaga

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
 Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA



Aitor Iregi Mondrako atzelaria Xabi Prieto Realeko erdilariaren atzetik korrika. Mondrako jokalariei baloia eraman zezaten atzetik korrika egitea tokatu zitzaizen egubakoitzean. | ARITZ GORDO

AURRE-DENBORALDIA

Jokalari, zaletu zein bi klubendako, gogoan gordetzeko lagunartekoa

- ▶ Ikusmin handia piztu zuen egubakoitzean Mondraren eta Realaren arteko norgehiagokak
- ▶ Mojategiko harmailak goraino bete zituzten zaleen babesasua jaso zuten bi taldeek

EMAITZA

MONDRA

0-12

REALA

FITXA TEKNIKOA

Mondra. Hasierako hamaikakoa:

Ruiz de Azua, Losada, Mujika, Gonzalez, Zabaleta, Etxebarria, Lopez (Kapitaina), Dueñas, Pavon, Ormaetxea eta Arrizabalaga.

Reala. Hasierako hamaikakoa:

Zubikarai, Gonzalez (Kapitaina), Elustondo, Vela, Pardo, Zurutuza, Castro, Jose Angel, Estrada, Etxebeguren eta Sangalli.

Bestelakoak: Mojategik inoiz izan duen sarerarik jendetsuena. Amaieran, zaletuek hartu zuten futbol zelaia.

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Partidu historikoa izan zen Mojategik egubakoitzean bizi izan zuena, hainbat arrazoirengatik: Mondraren 100. urteurrena, Realaren lehen bisita Mojategira, orain arteko sarerarik jendetsuena, eta emaitza, gutxienezko bazen ere, futboleko batere ohikoa ez dena: 0-12. Emaitzak inor gutxi harritu zuen, bi taldeen arteko maila nabarmena delako. Mondraren kasuan, gainera, hiru entrenamendu saio bakarrik egin zituzten egun handiaren aurretik. Saio gutxi dira dena berria den maila eta entrenatzaile berriak eta gazte mailatik igo diren jokalariei asko talde batendako. Eta hori, Lehen Mailan laugarren sailkatu den talde bat aurrean izanda ere, igarri egiten da.

Orain, Realaren lagunartekoak eragindako *zurrumbiloo* pasata, Gotzon Urzelai entrenatzaile heldu berriak gura dituen entrenamendu saio guztiak izan-

go ditu taldearen jokoa lantzen joateko. Proiektu berriaren oinarrietako bat delako lana, azkar baino, ondo egitea.

17:00etarako hainbat zale

Partidua hasi baino bi ordu lehenago hasi ziren zaleak Mojategi atarira gerturatzen. 17:45 aldera heldu zen Real eta eurekin batera lehen oihuak eta autografo-eskaerak. Idoloak horren gertu ikusteko aukera azkenera arte aprobetxatu gura zuten zaleek, haurrek eta gaztetxoek bereziki.

Bi taldeak beroketa lanak egitera irten zirenean entzun ziren lehen txalo zaparradak. Etxeko taldea izan arren, Mondrako jokalarientzako berezia izango zen hura: nekez jasoko dute ligako partidua baten halako babesasua norgehiagoka hasi baino lehen. Heltzear ziren 19:00ak, eta Mondrako ordezkarien aurpegiatzen igartzen zen urduritasuna.

Egun handia zen klubarendako, mendeurrenako ospakizunetako ekitaldirik kutunena.

Bi taldeak zelairatu ostean, Lehen Mailako partidua baten estilora, hainbat opari banatu zituzten: bi klubek oroigarri trukea egin zuten, Arrasateko Udalak Realari liburua eman zion, eta Mikel Gonzalezek oroigarria eta Mondrako kamiseta jaso zituen, besteak beste.

Lehen aukera, Mondrarendako

Zerrajeroak serio irten ziren, ondo jarrita. Lehen minutuetan, Real tentsio larregi barik irten zela aprobetxatuta, gola egiteko aukera garbi bat ere izan zuen Mondrak. Iker Pavon gaztea, Realeko atzeko lerroan izandako hanka-sartze baten ondorioz, Eñaut Zubikarai baino lehenago heldu zen baloira, baina gutxiatik bota zuen kanpora. Ez zuen baloi hori espero aurrelari arrasatearrak. Hortik aurrera Real

izan zen jaun eta jabe. Zelai erdiaz erabat jabetu eta aise aritu ziren Jagoba Arrasateren mutilak. Aukerak eta golak bata bestearen atzetik. Atsedendira 0 eta 5ekoarekin heldu ziren; erabatekoa zen Realaren nagusitasuna.

Bigarren zatia ere dinamika berean joan zen, bi entrenatzaileek ia jokalariek guztiak aldatu arren: Mondrako jokalariek baloia eraman zezaten atzetik, eta Realekoak baloia eraman zezaten atzetik. Hala, beste zazpi gol jaso zituen Mondrak bigarren zatian. Gola egin zutenen zerrenda, honakoa: Vela, De la Bella, Zurutuza, Prieto, Sangalli, Ros eta Pardo.

Partiduaren amaieran eguraldia aldrebestu egin zen. Hala ere, euriak ez zuten ekidin epaileak amaiera adierazteaz bat zaletuek Mojategiko futbol zelaia hartzea. Amaieran, guztiak pozik: zaleak, bi taldeetako jokalariek eta klubetako ordezkariak.

27 | TXIRRINDULARITZA | Diego Rubiok irabazi du Antzuolan



Markel Perez atezain gazteak ondo kendu zion baloia Agirretxeri. | IMANOL SORIANO



Carlos Vela, Mondrako Iker Lopezen aurrean, baloia gorde guran. | ARITZ GORDO

Tuit esanguratsuenak #mondrra-rea- n

@OIHAN72

"Euskararekin bat gure bi taldeak atzo Mojategin".

@XURZE

"Zorionak osterara Mondrari, 100 urte! Eta animo etxeko jokalariei, normalena pasatu da"

@TXARLYMONDRA

"Realekoa naiz, baina gaur Aupa Mondra!"

@IMABELOKI

"Amaitu da partidua! Zale guztiek zelaia bete dute!"

@PETEMIKEL

"@goiena ikusten @xurze eta @mirebiku-ren komentarioekin!"

@IKERMARIN18

"Zorionak @goiena Lan ederra egiten ari zaretena"

Opariak eta babesak Gontxarendako

Mikel Gonzalez Gontxa Realeko atzelari arrasatearrak ere ez du erraz ahaztuko egubakoitzeko partidua. Kapitainaren besokoaz zelairatu zen eta lagunartekoa hasi aurretiko ekitaldietan bera izan zen protagonista nagusietako bat.

Oparien artean, Mondrako zuzendaritzako Ander Garaik Arrasateko dragoiaren irudiaz egindako oroigarri bat eman zion. Gainera, talde zuri-morean jokatzeko duten eta haren koadrilakoak diren Jon Zabaleta eta Jon Ander Ormaetxearen eskutik kamiseta berezi bat jaso zuen Gonzalezek. Mondraren urteurreneko kamiseta, bere izena eta zenbakia atzean dituela. Opariengatik eta jasotako babesarengatik "eskerrik beroenak" eman zituen atzelariak.



Zabaleta eta Ormaetxea, Gontxari Mondrako kamiseta oparitzen. | ARITZ GORDO



MONDRAREN 100. URTEURRENA Goiena Klubeko bazkideendako

Mondra-Reala partiduko posterra opari

Uztailaren 22an, astelehenean, Goiena paperarekin batera.
Bazkide ez bazara, erosi kioskoan 1,10 euroren truke!



GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Deskontuak komertzioetan: Debagoieneko hainbat komertzioetan deskontuak.
Goiena papera: Astelehenean ere etxean jasoko duzu asteburuko informazio guztiarekin.
Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.



Urteko kuota: 50 € | 943 25 05 05
kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

DATUA

1.800

SARRERA INGURU SALDU ZIREN
Saldutako sarrera kopuru zehatza oraindik ez badakite ere, Mondrako arduradunen arabera, 1.800 sarrera inguru saldu ziren lagunartekorako.

50

BAT AKREDITAZIO BANATU ZIREN
Hainbat komunikabideren interesa piztu zuen partiduak: EITB, Mundo Deportivo, Marca, La Sexta, Antena 3... 50 akreditazio banatu ziren.

Partiduan parte hartu edota gertutik bizi izan zutenen balorazioa



MIREIA BIKUNA

GOTZON URZELAI
MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Berriz jokatu ez duten partidu bat zela esan diet, eta ahalik eta gehien disfruta zezatela"

Mondraren aulkian lehen partidua zuzendu zuen Gotzon Urzelai.

Ez da ondorioak ateratzeko lehia, baina nola ikusi duzu taldea?

Taldeak erakutsi duen jarrerarekin geratu gara. Hasierako 15 minutu horietan batez ere, fisikoari eutsi diogun tarte horretan. Hiru entrenamendu saio egin ditugu partiduaren aurretik eta lagunartekoa bera ere entrenamendu bat moduan hartu dugu, elkar ezagutu eta ulertzeko beste aukera bat moduan.

Partidu aurretik zein aholku eman diezu zure jokalariei?

Batez ere ahalik eta gehien disfruta zezatela. Berriz ere jokatu ez duten partidu bat dela esan diet eta gozatzeko, betiko naturaltasunaz jokatu. Beroketan urduritasun puntua antzeman zitekeen, baina behin partidua hasita eta Real ohi baino lasaiago irten dela ikusita, tarteka, gozatzeko aukera izan dugu.

Abuztuaren 19an hasiko zarete denboraldia serio prestatzen. Zer landuko duzue bereziki?

Indarra eta potentzia lantzea da hasierako asmoa eta gero ikusiko da, poliki-poliki. Jokalariekin izan dudana lehen harremana oso ona izan da; sentsazio onak. Beteranoekin oso ondo eta gazteak ere nahiko helduak dira. Ea dena ondo irteten den.



JOKIN BEREZIARTUA

JAGOBA ARRASATE
REALEKO ENTRENATZAILEA

"Ez dakigu beste jokalariren bat etorriko den, baina daudenengan konfiantza dugu"

Realaren aulkian debuta egin zuen Jagoba Arrasatek egubakoitzean.

Nolakoak izan dira taldeak utzi dizkizun sentsazioak?

Onak. Entrenamendu saio asko egin ditugu eta jokalariek futboleko jokatzea gura zuten, partidu baten sentsazioak eta erritmoa hartzen joan. Minutuak hartzen hasi gara, golak egin ditugu eta irabazten hasi gara. Garrantzitsua da dinamika onean hastea. Partiduan sartzea kosta zaitzugu lehen zatian, baina behin partiduan sartuta, gero eta hobeto joan gara. Bigarren zatian guri gustatzen zaitzugu jokoa egin dugu gehiago.

Zer iruditu zaizu Mojatetik harmailetan izan den giroa?

Probintzian jokatzea handia da, asko gustatzen zait. Jokalariendako ere ederra da Real horrenbeste bizi den leku batera etorri eta ikustea guztia oso ondo antolatuta eta jendea lagunatzeko gertu dagoela. Zaleek gu hona etortzea eskertzen duten moduan, guretako ere poztasun handia da probintzian jokatzea.

Illarramendik hutsunea utziko du. Nola beteko duzue?

Ez dakigu beste jokalariren bat etorriko den, baina talde ona dugu eta daudenengan konfiantza dugu; aurre-pausoa emateko gertu daude, iaz baino pisu gehiago izateko.



J.B.

JON ZABALETA
MONDRAKO JOKALARIA

"Ligako edozein partidutan tentsio gehiago izaten da; sekulako kalitatea dute baloiarekin"

Oso gaztea den taldean, paper garrantzitsua izango du atzeko lerroan Jon Zabaleta beteteranoak.

Hasteko, nola gogoratuko duzu egubakoitzeko partidua?

Egunero ez da Lehen Mailako talde baten kontra jokatzen. Real, gainera, betidanik gurea izan den taldea. Ezberdina eta oso polita izan da.

Nola bizi izan zenituen partidua hasi aurreko momentuak?

Urduritasun puntu berezi batekin, jendeagatik eta Real zatorrelako. Baina ni behintzat ez nintzen oso urduri jarri. Hasieratik bagenekien baloiaren atzetik korrika egitea tokatuko zitzaigula; ligako edozein partidutan tentsio gehiago izaten da. Izan ere, sekulako kalitatea dute baloiarekin; gu herriko jendea gara eta eurak selekzio bat. Ezin izan dugu ezer egin, ez da harritzekoa 12 gol jasotzea.

Zelan entrenatzaile berriarekin?

Lehen sentsazioak onak dira. Oraindik ez dakigu zein joko mota egingo dugun, baina lanerako gogoz eta ilusioz ikusten dugu, eta jatorra da. Taldeari, bestalde, heldzea falta zaio. Proiektu polita izan daiteke eta jokalariek badaude igotzeko, baina hortik igoera lortzea jauzi handia dago. Igoera lortu zen azken aldia ikusi genuen zein zaila den denboraldia lehen postuan amaitzea.



J.B.

MIKEL GONZALEZ
REALEKO JOKALARIA

"Hunkigarria izan da; maitatua sentitu naiz nire herrian eta hori garrantzitsua da"

Kapitainaren besokoaz zelairatu zen Mikel Gonzalez *Gontxa*. "Asko" hunkitu zela aitortu zigun lagunartekoaren amaieran aldagelan bertan egingadako prentsa agerraldian.

Zure herrian jokatzea polita izango zela zenioen eguna heldu aurretik. Hala izan da?


Bai, oso hunkigarria da. Zure herrian zaude eta horrenbeste jende ikustea... Oso polita da. Denboraldi berriko lehen partidua izan da eta horrek jende asko erakarri du. Ez da harritzekoa, badakigu-eta hemen realzale asko dagoela.

Nolako sentsazioak izan dituzu futbol zelaian?

Lehen partiduetan beti izaten dira sentsazio arraroak. Hankek normalean baino gehiago pisatzen dute eta igartzen da aurre-denboraldiaren zati handi bat falta dela oraindik. Sentsazio horiek kentzen joan eta ohitzen joateko daude, hain justu, aurre-denboraldiko lagunarteko partiduak. Horretan gabilta.

Hainbat oroigarri jaso dituzu hasieran. Nola baloratzen duzu klubak eta herriak izan duen keinu hori?

Oso hunkigarria izan da. Maitatua sentitu naiz nire herrian eta hori garrantzitsua da. Eskerrik beroenak eman gura dizkiet opariak egin dizkidatenei eta zaletu guztiei.



J.B.

JOSE LUIS EZKURRA
MONDRAKO ZUZENDARITZA

"Hobe igoera aurten lortzen bada, baina ezin gaitzke helburu horrekin itsutu"

Partidua amaitu ostean eta dena ondo joan zela ziurtatuta, gustura erantzun zituen gure galderak Jose Luis Ezkurra.

Nolako balorazioa egiten duzue klubetik?

Borobila. Markagailuak ez zuen zeresanik guretako, jendeak arratsalde pasa eder bat egitea zen gure helburua. Gol guztiak talde batek egin ditu, baina bi taldeen jokaldiak txalotu dira, ezin da gehiago eskatu.

Harmailak lepo bete dira eta horrek laguntza ekonomiko handia suposatuko du, ezta?

Dirua etortzen den moduan joaten da; orain gutxi bizi izan genuen egoera gogoratzea besterik ez dago. Orain zertxobait zuzendu dugu guztia eta gure helburua zorrik ez izatea izan behar da lehenbizi. Hori bai, ezin daiteke ukatu gaurkoa [egubakoitzekoa] egun ona izan dela.

Nola ikusi duzu taldea zelaian?

Goiz da esateko, hiru entrenamendu saio bakarrik egin dituzte. Gazte ugari dago eta hori positiboa da; harrobi barik maila jakin batera helduta eustea baino, oinarria ondo sendotzea tokatzen da orain. Hobe aurten igoera lortzen bada, baina ezin gaitzke helburu horrekin itsutu. Jokalariak badaude igotzeko, baina lana ondo egin beharra dago.



AINHOA PORRELL
ARRASATE

"Mondra eta Real ikustera etorri gara, bi taldeak modu berean animatzera. Guztiondako da polita, baina umeendako batez ere. Gogoratze moduko eguna da eurendako, oso pozik eta urduri egon dira egun osoan zehar".



ASIER ELORZA
OÑATI

"Entrenatzaile berriarendako lehen partidua da eta, beraz, aukera ona denboraldi berrian Realak nolako jokoa egin dezakeen ikusteko. Bestalde, Illarramendiren erabakia errespetatu egiten dut; aukera paregabea da harendako".



PERU ATXA
ARRASATE

"Real eta Mondra animatzera etorri naiz, bi taldeak ditut gustuko. Hala ere, alde handia dago eta ez da lehiarik egon. Oso polita da Realeko jokalariek horren gertu ikustea. Ea Carlos Velaren autografoa lortzen dudana..."



ANARTZ ERAÑA ETA ANDONI AGIRRE
ARRASATE

"Mondra animatzera etorri gara, besteen gainetik gure taldea da. Hori bai, Realeko jokalariek gertutik ikustera ere etorri gara, egunero ez dago horretarako aukera. Ez genuen halako emaitzarik espero, baina bagenekien Mondrarendako oso partidu zaila izango zela. Garrantzitsuena ondo pasatzea da eta, noski, Realeko jokalarien autografoak lortzea. Jokalari guztienak lortzen saiatuko gara, baina Carlos Velarena eta Chory Castrorena gura ditugu bereziki".



Epaiak partiduaren amaiera adierazteaz bat zaleek —hur eta gaztetxoek bereziki— futbol zelaia hartu zuten, euren idolei autografoak eskatu eta eurekin argazkiak ateratzeko. | ARITZ GORDO



Hurrek nekez ahaztuko duten arratsaldea bizi izan zuten Mojategin. | ARITZ GORDO



Realeko jokalarri batzuk ume batekin, Arrasatera heldu berri. | IMANOL SORIANO



Dani Estrada beroketa lana egiten. | ARITZ GORDO



Gontxa autografoak sinatzen. | IMANOL SORIANO



Xabi Urtzelai eta Mireia Bikuña kazetariak aritu ziren esatari. | ARITZ GORDO


Goiena, zuzenean bota zuen bakarra

Partidua zuzenean emititu zuen hedabide bakarra izan zen Goiena Komunikazio Taldea. Goiena telebistan ikusteaz gain, *Goiena.net*-en ere zuzenean jarraitzeko aukera izan zen mundu osoan, streaming bidez. Estudiotik kanpo egindako lehenengo zuzeneko emisioa izan zen. Gaur, *Harmailatik* saioa berezia izango da (22:00).



AITOR PEREZ
ARETXABALETA

"Reala gertutik ikustera etorri naiz gaur ere, bazkidea naiz-eta. Nahiko lasai hasi dira, baina gero euren jokoa egin dute. Ea Vela edo Chory Castoren autografoak lortzen ditugun. Illarramendi diruagatik joan dela uste dut".



ANDER ARIZALETA
ARRASATE

"Realaren maila ikusita, Mondra animatu beharko dugu. Realeko jokalariek gertutasun handia erakutsi dute, eskertzekoa da. Nahiko garbi zegoen Illarra joan egingo zela; Madrilek ordaindu beharrekoa ordaindu du, eta kito".



IÑAKI GURRUTXAGA
ESKORIATZA

"Mondra animatzera etorri gara, etxeko taldea; lastima alde handia dagoela. Noski, Reala ere animatu dugu. Ederra da harmailak goraino beteta eta dagoen giroa ikustea. Emaizta gutxienekoa da, Mondrari laguntzea da garrantzitsuena".



ALAITZ LARRAÑAGA ETA DORLETA EZEIZA
ESKORIATZA ETA GATZAGA

"Eskoriatzatik eta Gatzagatik gatoz, Reala animatzeko gogoarekin. Oso egun berezia da guretako, horren jokalarri onak oso gertu ikusteko aukera dugu gaur. Nahiko argi geneukan Realak erraz irabaziko zuela, baina ez genuen espero horrenbeste gol sartuko zituenik. Mondrarendako onegiak dira, tarteka gehiegizkoa izan da bi taldeen arteko aldea. Ahalik eta autografo gehien lortzeko saiakera egingo dugu, baina argi dugu zein den gure jokalarri gustukoena: Mikel Gonzalez".

SASKIBALOIA

Saskibaloizaleek esklerosia dutenekin bat egin dute

- ▶ Aretxabaletan hirunako txapelketa jokatu dute
- ▶ Dirua Ademgi elkartearendako izango da



Taldea mistoak lehiatu ziren zapatu arratsaldean. | ARANTZAZU EZKIBEL

ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETA
Esklerosi anizkoitza dutenen alde, eta hain zuzen, horiei laguntzen lan egiten duen Ademgi elkartearen aldeko saskibaloizale txapelketa arrakastatsua jokatu dute aste bukaeran Aretxabaletan. Atzo arratsaldean, Euskal Herriko elite mailako jokalarien txanda izan zen. Antolatzaileak oso gustura geratu ziren: Gasteiz, Azpeitia, Tolosa, Zumarraga eta Donostiatik etorri ziren taldeak. Horiez gain, etxekoek ere jokatu zuten.

Onenak izan ziren

"Maila handiko jokalariek etorri dira txapelketara", azaldu zuen Zuhaitz Gonzalez antolatzaileak. Parte hartu zutenen artean onenak Azpeitiko Txekorrak izan ziren. Finala jokatu zuten Si cago me limpio-ren aurka.

Zapatu arratsaldean, aldiz, herriko koadrilen txanda izan zen. 21 taldek eman zuten izena; horietatik 17 gizonetakoetan lehiatu ziren, nahiz eta talde batzuk mistoak izan. Gainontzeko lauak nesken txapelketan lehiatu ziren. "Jende asko etorri da partiduak ikustera. Plazan bost kantxa jarri ditugu, eta esan behar dugu kantxa bakoitzaren alboan ikusle asko izan ditugula", zihoen Gonzalezek. Ligaxka eran jokatu zituzten partiduak, eta ondoren talde bakoitzeko bi onenek final erdiak jokatu zituzten: mutiletan Bordinis Bergarako taldeak irabazi zuen txapelketa. Bigarren sailkatu zen Patxangas taldea.



Arejoleiba eta Zeziaga, atzo arratsaldean. | JOSETXO ARANTZABAL



Emakumezkoetan lau talde lehiatu ziren. | A.E.



Umeendako puzgarriak jarri zituzten. | A.E.

Nesketan, aldiz, Eskoitz taldeko neskek izan ziren onenak. Maila benetan ona erakutsi zuten.

Hiruko saskiratzeak

Zapatu arratsaldean hiruko saskiratze txapelketa jokatu zuten. Ander Gartzia izan zen onena –Jon Canoren aurretik; nesketan, aldiz, Maite Frailek irabazi zuen hirunako saskiratze txapelketa –bigarrena Eneritz izan zen.

Sari banaketa ekitaldian Maria Luisa Ustarroz Ademgiko presidentea eta Aretxabaletako La Caixako zuzendaria izan ziren. Oroigarria eta ardo botila jaso zuten lehenengok zapatuan; atzo, aldiz, oroigarria, ardo botila eta lau lagunendako afaria izan zen saria. Zapatuan afari herrikoia egin zuten: 65 lagunek parte hartu zuten afarian. Bertsolariek girotu zuten afal ostekoa.

Bero handia egin zuen

Aste bukaera osoan bero handia egin du. Horrek, baina, ez du eraginik izan jendeak txapelketan parte hartzeko. Bai bailarako eta baita bailaraz kanpoko jende askok parte hartu du txapelketan. Beroak, eragina izan du, ordea, jokariengan. Zapatu goizean neska batek lipotimia izan zuen. Bestelako lesio txikiak ere izan dituzte: mutil batek, esatera, sorbaldan min hartu zuen zapatu arratsaldean.

Koadrila arteko lehiak

Domeka arratsaldeko partiduak maila handikoak izan ziren arren,

giro benetan berezia eta polita zapatu arratsaldean izan zuten. Herriko eta bailarako koadrilen txanda izan zen. Batzuek ondo eta beste batzuek ez hain ondo jokatu arren, ondo pasatzea izan zen denen asmoa. Horren harira, Aretxabaletako Iker eta Gilenek, barrezka, zera esan ziguten: "Gaur arratsaldea koadrilendako zen, baina profesionalak etorri dira! Horien txanda bihar da!". Ikerrek eta Gilenek esandakoa Gorka Kintana, Aloña Mendiko jokalaritari esan genion. Honek, barrezka, zera erantzun zigun: "Ni gaur koadrilarekin etorri naiz, eta lehia guztiak galdu ditugu. Hor-taz, profesionalak ez dakit barenortzuk izango diren...!" Kontuak kontu, ondo pasatzea eta Esklerosia dutenendako dirua batzea izan zen helburu nagusia denendako.

Zergatik Aretxabaletan?

Zuhaitz Gonzalezek, Gorka Alarcia eta Asier de la Iglesiak antolatuta dute txapelketa, La Caixaren babesarekin. Antolatzaileak gustura daude txapelketak izan duen erantzunarekin: "Ez dugu sari handirik banatu, hala ere jendea txapelketa jokatzera etorri da. Horrek esan nahi du konpromiso handia erakutsi dutela jokalariek".

Antolatzaileak Aretxabaletan bizi direlako erabaki dute txapelketa Aretxabaletan jokatzeko. Era berean, gainera, saskibaloia herritarrengana hurbiltzea lortu dute.



JON CANO
ARETXABALETA

"Ideia polita iruditu zaigu eta horregatik eman dugu izena. Gainera, gure herrian izanda, koadrilarekin ondo pasatzeko aukera da. Eta, nola ez, dirua zertarako den jakinda beti dago ondo laguntzea".



GORKA ZUBIRIA
ARETXABALETA

"Koadrila giroan ondo pasatzera etorri gara. Bazkaria izan dugu eta gero etorri gara jokatzera. Egia esan, ez dakigu saskibaloian jokatzeko baina ondo pasatu dugu. Bero egin du baina orain ondo egoten da".



GORKA KINTANA
ARRASATE

"Gure lagun Asierrek antolatu du txapelketa eta horregatik motibazio bereziarekin etorri gara. Zapatuan koadrilarekin jokatu dut eta domekan, taldekoekin. Lagun giroan ondo pasatzea da asmoa, eta gainera dirua lortzea".



Jaurtiketa egiteko gertu. | IMANOL SORIANO



Diego Rubio Antzuolako helmugara sartzen. | JOSETXO ARANTZABAL

TXIRRINDULARITZA

Asentzion taldetxoa egin eta Bergaratik gora ihes eginda irabazi du Rubiok

Caja Rural taldeko Diego Rubio izan zen azkarrena atzo jokatu zuten Antzuolako proban

A.E. | ANTZUOLA

Azkarra. Benetan azkarra. Hala-koa izan zen atzo jokatu zuten 68. Antzuola Saria. Batz best 44,04 kilometro orduko abiaduran joan ziren txirrindulariak.

133 ziklista izan ziren irteera puntuan eta helmugara 78 iritsi ziren. Horietan azkarrena Caja Rural taldeko Diego Rubio izan zen. Tropelak elkarrekin

egin zuen ia ibilbide guztia. Asentzio igotzen –lasterketako 110 kilometroa–, 14 laguneko taldeak ihes egin zuen. Ondoren, Antzuolako saihsbiderako sarrean Rubiok eta Naturgas taldeko Alvaro Truebak taldetxotik ihes egin zuten; azkenean, Rubiok Trueba atzean utzi eta bakarrik sartu zen helmugara. 2:57:07ko denbora behar izan zuen Rubiok 130 kilometroak egiteko.

Tropela banatuta sartu zen

Atzokoan, tropela oso banatuta sartu zen Antzuolako helmugara. Bigarrena bost segundora sartu zen; ondorengoak 18 segundora, 35 segundora, 43 segundora, 51 segundora eta minutu eta 15 segundora. Hamabosgarrenetik aurrerakoek bi minutu baino gehiagoko aldea izan zuten.

Mendiko saria, Quintanak

Mendiko saria Dayer Quintanak eroan zuen –Nairo Quintana profesionalaren anaia. Taldeko saria, aldiz Naturgas Energia taldearendako izan zen (8:52:44ko denbora).

Nabarmendu behar da atzokoan eroriko bakararra egon zela, eta gainera, eroritako txirrindulariak ez zuten medikuren laguntzarik behar izan.

ARETO FUTBOLA

Doble Cero taldearendako sari nagusia

Doble Cerok 4-2 irabazi zuen Zaldibarko 24 orduen areto futbol txapelketa La Canteroren aurka. Jokalari onanaren saria Igor Ojangurenekin eroan zuen. Guztira 14 talde lehiatu ziren Zaldibarko txapelketan.



RAMON AZKARATE

PERTIKA JAUZIA

Maialen Axpek ez du aurrera egin 23 urtez azpikoen Europako lehian

A.E. | ARRASATE

Tampere (Finlandia) jokatu duten 23 urtez azpiko Europako Txapelketan parte hartu du Maialen Axpe arrasatearrak. Martitzenean joan ziren Finlandiara eta egubakoitzean izan zen bedoñarraren saioa: 3,70 metroko jauzia egin zuen. Ez zen nahikoa izan txapelketan aurrera egiteko. Emaizta horre-

kin 24. postuan sailkatu zen bedoñarra; baina, ez zen nahikoa izan. Lehenengo 12ak sailkatu ziren hurrengo faserako.

Malen Ruiz de Azua

Ruiz de Azua Italiara joango da egunean junior mailako Europako txapelketa jokatzera. Espainiako pertika txapelketa irabazi zuen Ruiz de Azuak.

PIRAGUISMOA

Beti Bustiko infantilak Espainiako Kopako hirugarren postuan

Lan bikaina egin dute Bergarako piragunistek Dunbrian (Galizia) jokaturako Espainiako Kopako proban. Podiumean sartu dira taldeka –hamaika talderen artean–, besteak beste, Aitziber Iturriagak (hirugarren, C1ean), Miren Murgizuk (lehena, K1ean, eta bigarren, C1ean) eta Mikel Zubizarretak (bigarren, K1ean) lortutako dominei esker.



Baskoniako maskota Aretxabaletako plazan izan zen. | A.E.

Aker ere laguntzen izan zen!

Aste bukaerako txapelketaren helburua Ademgi elkartearendako dirua batzea izan da. 400 bat kamiseta saldu dituzte, 5 euren truke bakoitza. Gainera, parte hartzaile bakoitzak, nagusien mailan, 10 euro ordaindu ditu izena ematerakoan (talde bakoitzeko 40 euro); gaztetxoek 5 euro ordaindu dituzte. Irabazitako dirua esklerosi anizkoitza dutenei laguntzen lan egiten duen elkartearendako izango da.



MAITE FRAILE
ARETXABALETA

"Normalean ez dut saskibaloian jokatzeko ondo pasatzea etorri naiz. Bero handia egin du. Nire koinatuak antolatzen du txapelketa. Merezki izan du etortzea: ondo pasatu dugu eta dirua batu dugu".



INMA MURILLO
ESKORIATZA

"Umea izan dudanez aspaldian ez dut saskibaloian jokatu; hala ere, gaur hau ikusi dudanean etxera joan eta arropak aldatu ditut. Merezki izan du. Elkartearendako dirua ateratzeaz gain saskibaloia ezagutzera eman dugu".

FUTBOLA

Aitor Arregi | Eibar taldeko jokalaria

"Eibarrek igoera merezi zuen: bai elkarteak eta baita herriak ere"

- ▶ Bergararra erdiko atzelaria da eta denboraldi bikaina egin du Garitanorekin
- ▶ Hilaren 24an hasiko dira denboraldi berria prestatzen: bigarren urtea egingo du Eibarren

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Oporrak eta Bigarren Mailara igozteagatik ospakizunak bukatuta elkartu ginen Aitor Arregi-rekin (Bergara, 1990). Eibar taldean jokatu du Gaizka Garitanoren aginduetara, eta, denboraldi borobila egin ostean, Hospitaleten kontra lortu zuten amestutako igoera. Abuztuaren 17an hasiko du liga Eibarren elastikoarekin, Jaenen kontra.

Denboraldi gogorra bezain ederra izan da Eibarrendako. Zorionak, Bigarren Mailan jokatu duzue!

Eskerririk asko. Lan handia egin dugu, eta, egia esan, merezitako saria lortu dugu. Azken lau urteetan Bigarren B Mailan egon gara. Hainbatetan igoera faserako sailkatu, baina azken urratsa egitea falta izan zaigu. Aurten lortu dugu, eta pozik gaude. Eibarrendako, klubarendako eta herriarendako sari handia da.

Hainbat urtean sari barik geratu ondoren, aurten bai. Hospitaletako partiduan urduri zeundeten?

Bai. Emaizta ona lortu genuen Ipuruan, eta abantaila horrekin joan ginen. Lehen ordu laurdenean abantaila mantenduta, igoera eskura genuela bagenekien. Dena den, urduritasun handia zegoen taldean. Igoeratik gertu geratu izan ginen denboraldiak zetozkigun burura.

Baina tentsio hura ondo kudeatu genuela esango nuke.

Eibarren zaleekin egindako ospakizunak lortutako sariaren parekoak izan ziren.

Bai. Lehenengo, Hospitaleten bertan ospatu genuen eta ondoren, herritarrekin, Eibarren. Untzaga plaza lepo bete zen taldea zoriondu eta agurtzeko.

Zeintzuk dira Eibarren ezaugarri nagusiak?

Talde sendoa garelako uste dut. Talde-lana ondo egiten dugu, eta lerro guztietan erregularrak gara. Horiek izan dira gure taldearen ezaugarriak. Gehienak jokalaria euskaldunak gara, eta, gainera, kanpotik etorritakoak ondo integratu dira.

Bestalde, Bigarren B Mailak hedabideetan presentzia txikia dauka, eta horrek lasaiago lan egiteko aukera eman digu.

Gaizka Garitanoren aginduetara egin duzu lan. Profesionala izan den jokalaria. Nolako da?

Lan handia egiten du, eta neurri berean eskatzen digu: lana, konpromisoa eta profesionaltasuna. Nik esker oneko hitzak besterik



Aitor Arregi, Eibarko jokalaria, Agorrosinen. | MIREIA BIKUÑA

ez daukat Garitanorendako. Aurretik elkar ezagutzen genuen. Hirugarren Mailan hura izan zen nire entrenatzailea. Gainera, taldean lekua daukadala esan dit eta oso pozik nago.

Bigarren Mailan, Lehenengotik jaitsi diren talde historikoen kontra jokatu duzue: Mallorca, Deportivo eta Zaragoza.

Riazorren 25.000 zaleren aurrean jokatzeko ikaragarria izango da. Oilo ipurdia ipintzeko modukoa. Baina, era berean, erronka berriari aurre egiteko gogotsu gaude. **Talde historikoak, eta punta-puntako aurrelariak. Erdiko atzelari izanda, ez zara aspertuko.**

Atzeko lerroan lekua topatu dut. Zentral postuan gustura dihardut. Aurrelarien maila asko igoko da Bigarren Mailan. Akaso, beste lerro batzuetan ez, baina aurrelarietan oso nabaria da ze mailatan jokatzeko duten. Erdi-profesionalak dira asko eta beste bizitasun bat dute baloiarekin:

"Garitanok lan handia egiten du, eta neurri berean eskatzen digu"

golak egiteko, erdiratzeko, pase luzeak emateko...

Erdiko atzelari postuan bai, baina ze ezaugarriekin?

Ez dakit ni naizen pertsona egokiena galdera horri erantzuteko [Barre]. Jokalari osoa naizela esango nuke: eskuina naiz eta hankekin baloia ondo kontrolatzen dudala uste dut.

Erdiko atzelari postua ardura handiko postua da egungo futboleko.

Bai. Atezainaren aurretik gaude eta aurrelariak gelditzea da gure lana. Gainera, azkenaldian, bogan daude zentralak. Maila ikusgarria duten zentralak daude: baloia ondo menderatzen dutenak, defentsan sendo ibilita, golak egiteko gai direnak... Sergio Ramos, Gerard Pique eta Thiago Silva daude guztien gainetik. Euren taldeetan ordezkaezinak dira.

Gurera etorrita, beste bi izen aipatu nituzke: Iñigo Martinez eta Mikel Gonzalez. Denboraldi borobila egin dute Realarekin.

"Erdiko atzelari postuan jokatzeko; ardura handiko postua da"

Bai. Batez ere, Mikel Gonzalezen lana azpimarratuko nuke. Bilakaera itzela izan du arrasatearrak azken urtean. Iñigo Martinezek ere maila handia dauka, eta laster jokatu du Espainiako selekzio nagusiarekin.

Begararra izanda, ez duzu inoiz Bergararen kamisetarekin jokatu!

Ez. 11 urterekin Lezamara joan nintzen. Han hazi nintzen jokalaria moduan. Urte gogorak izan ziren, baina egun naizena han ikasitakoak emandakoa dela esango nuke.

Asko ikasi nuen, eta lagun asko egin nituen. Heldutasun puntu batetik begiratu, berriro errepikatuko nuke esperientzia hura. Aberasgarria izan zen.

Lezamatik Eibarrera joan zinen. Athleticken nire bidea agortu zenean, Eibarrera joan nintzen. Hirugarren Mailan hasi eta gaur arte. Laugarren denboraldia du Eibarren eta lan ona egin dudala uste dut.

"Bi urterako kontratua sinatu nuen, eta bigarrena geratzen zait"

Egunen baten Bergarako kamiseta urdina jantziko duzue?

Akaso, futbola utzi aurretik izango dut Bergararekin jokatzeko aukera. Arantza hori daukat, baina ikusi egin behar.

Oraingo Eibarrekin jokatu duzue Bigarren Mailan. Noiz hasiko duzue aurre-denboraldia?

Bi taldetan hasiko dugu: batzuk hilaren 17an eta beste batzuk 24an. Ni neu, bigarren taldean hasiko naiz.

Irailko liga prestatzen hasiko zarete buru-belarri.

Bai, zalantza barik. Oraindik ez gara egon entrenatzailearekin eta ez dakigu ze asmo izango dituen. Pentsatzekoa da gure helburua maila mantentzea izango dela, hortik gora beste helburu batzuk zehaztea oso zaila delako. Iaz ezinezkoa.

Igoera lortu dugu, baina orain mailara egokitu beharko gara. Disfrutatzeke urtea izango dela uste dut.

Non ikusten duzue zure burua urte batzuk barru?

Ez dakit. Oraingo, Eibarren. Bi urterako kontratua sinatu nuen, eta bigarrena betetzea geratzen zait. Urtean zehar lan ona egiten badut, Eibarren jarraitzeke aukerak izango ditut.

Kritika konstruktiboak onartzeak garrantzia du haurren garapenean

Haurtzaroan ikasten dugu kritikak onartzen, eta lagungarria da helduarorako

NAIARA URIARTE | ARRASATE

Haurtzaroan ikasten da kritikak onartzen, eta oso lagungarria da helduaroko gaitasunak lantzeko. Hala diote, behintzat, *Guraso.com* atarian.

Erikson Institutuko Frances Stoff irakasleak haurren garapenean eragina duten gaiak lantzen ditu. Haren iritziz, umeak galtzen ari dira kritikak onartzeko gaitasuna. Horrela, ez dituzte bizitzan aurrera egiteko erabiltzen. Ume horiek nerabezarora iristen direnean -20 urte aipatzen ditu Stoffek- aurrera egiteko motibazio txikiagoa erakusten dute. "Aukera bat noiz iritsi zain egoten dira", dio Stoffek.

Adituaren esanetan, gurasoak egon daitezke joera horren abiapuntuan: "Hain zentratuta daude ume zoriontsuak hezten, ez dituztela behar den moduan hezten. Guztiaren gainetik autoestimua zaindu behar den garaioetan ez da kritikarik egiten. Kritikak jasotzen jakitea ere garrantzitsua da: bidea zabalduko diegu etorkizunean jasotakoak kudeatzen ikasteko. Gainera, umeek berehala desberdinduko dituzte kritika konstruktiboak eta ganora gabekoak".

Kritika konstruktiboa

Guraso.com atarian esaten denez, umeen autoestimua zaindu egin

behar da: "Akatsetatik ikasteko baliatu behar da kritika, eta laguntzen du etorkizunean erabaki zuzenagoak hartzen; baina kritikak kudeatzen ere ikasi behar dute".

Honelako kritika positiboak egin behar direla diote *Guraso.com*-en: "Zentratu ekintzan eta ez pertsonan -ondo egin ohi dituzu etxeko lanak, baina gaurkoan gaizki egin dituzu-, ez etiketatu umea, modu atseginean egin kritika eta kritikak pribatuan egin, ez lagun edo senitarteko guztien aurrean. Umea mindu dezakegu, horrela jokatzuz gero".

Gehiago jakin nahi izanez gero: *Guraso.com*.



Umea, pentsatzen.

Itziar Bartolome: "Homo mutis"-a edo beste aldera begiratzeko joera daukagu gaur egungo gizartean"

Jende arteko heziketa pasibo bihurtzen ari da; horren ondorioz, hezkuntza zein komunikazioari lotutako harreman aukerak txikitzen ari dira nabarmen

N.U. | ARRASATE

Itziar Bartolomek, *Guraso.com* atariko kolaboratzaile arrasatearra, honako gogoeta egiten du: "Familiatik eta lagunartetik haratagoko beste pertsonetik dugun portaeraren, herritartasunaren eta hezitzaile arduraren artean bada lotura bat. Azken boladan, esan dezakegu herritar hezitzailearen rola gainbeheran dagoela, baina ohartzen al gara horren ondorioez?".

Kezka hori azaltzeko, Bartolomek ondorengo kontakizuna egiten du: "Bilboko kale batetik nindoan, nire aurretik zihuan emakume bat bere alaba txikia eskutik helduta. Haurrak gozokiaren papera lurrera bota zuen. Amak ez zion ezer esan. Beraz, gozoki-papera eskuan hartu eta haiengana hurbildu nintzen esanez: 'Barkatu, baina papera lurrera erori zaizue'. Emakumeak aurrera jarraitu zuen nik esandakoari kasurik egin gabe... Papera zakarrontzira bota, eta nik ere aurrera jarraitu nuen".

Arraro begiratu

Bartolomeren iritziz, horrelako makinatxo bat adibide izango du jendartearen heziketan parte-hartze aktiboa duen edozeinek. Halakoetan jasotzen diren erantzunak izaten dira, batzuetan, erasokorrak; besteetan, iraingarriak; esker onekoak ere bai, noizean behin. Baina, gehiengotik, arraro begiratzen dute.



Bi neska parkean jolasean.

"Nondik irten da hau?", pentsatuko balute bezala.

Hamarkada batzuk atzera eginez gero, herritarren arteko heziketa aktiboa onartua zegoen. Bartolomek dio: "Hezitzaile rola gure etxekoentzat erreserbatzen ari gara, eta besteak hezteko ardura desagertuz doa. Azken finean, egun, galtzen ari da. Halako egoera baten aurrean, helduen pasibotasunaren zergatia jakin nahian, gurasoei zuzenean galdetu behar zaie. Eta haien erantzuna: 'Hobe ez sartzera, gero beraien gurasoak nigana etor daitezke tokea ematera eta nik ez dut arazorik izan nahi'. Horren ondorioz, inguru hurbilean gertatzen diren pasadizoen ikusle pasibo bihurtzen

da herritarra, eta espezie berria sortu: *Homo mutis*-a".

Komunikazioaren galera

Isiltasun edo pasibotasun horrek, noski, bere ondorioak ditu, eta horrek kezka sortzen du. Esaterako, inkomunikazioa, elkarren artean hezteko ohitura galera, eta, azken finean, hezkuntza zein komunikazioari lotutako harreman aukerak txikitzen ari direla nabarmen, alegia.

Hala, Bartolomeren esanetan: "Nahikoa ardura delegatu ditugu gure gobernu, eskola, administrazio eta bestelako herri erakundeetan; herritarren arteko heziketa ardura ere delegatu nahi al dugu? Norengan?".

Haur txiki zein nerabeetan arreta berezia jarri behar da bero-kolpeak daudenean

Bero-kolpeak saihesteko neurriak kontuan hartu eta sintoma nagusiei erreparatu

N.U. | ARRASATE

Udako bero-kolpeen aurrean neurriak hartu nahian, *Guraso.com* atariak hainbat gomendio egiten ditu.

Eguzkipean denbora luzez egonda edo bero handia bada go arriak dago bero-kolpe batek jota gaixotzeko. Gaixotzeko bakarrik ez: haur txiki kasuan heriotza ere ekar dezake. Bero-kolpe batek kalte handia egin diezaike haur txiki bati. Izan ere, zailtasunak dituzte gorputzaren tenperatura erregulatzeko.

Bero-kolpeak saihesteko neurriak hartu behar dira: ekidin eguneko ordu beroenak, ez eduki umeak eguzkipean luzaroan, arropa egokia aukeratu,

txapelak erabili, eta, batez ere, ura sarritan eskaini. Horretaz gain, ez egin kirolak eguneko ordu beroenetan, eta itzala eta gune freskoak aukeratu umeentzako. Era berean, otordu arinak eta hotzak egin.

Bero-kolpearen sintomak

Sintoma nagusiak honakoak dira: sukarra -normalean, oso altua-, azala oso bero, buruko mina edo suminkortasuna, goitika egitea, ahultzea, konortea galtzea... Konbultsioak agertzea eta pulstua jaistea ere bai. Hori gertatuz gero, adituek gomendatzen dute gorputzaren tenperatura jaistea: eraman umea itzaletara edo gune fresko batera eta sartu ur freskotan.



Gazteak igerilekuan.

KULTURA

Tradizioa gaurkotzeko jauzia, inprobisazioren aginduetara

- ▶ Bixente Martinezen Igelaren Banda taldeak kontzertua egingo du zapatuan Arrasaten
- ▶ Kantutegi tradizionala jazz eta inprobisazioarekin astintzen du talde ezagunak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Igelak jauzi egiteari 2008an utzi zion baina Bixente Martinezek – Oskorri, Hiru Truku –, proiektuaren aitak, hibernazioan utzi zuen ugaraxo musikazalea. Indar berrituta, 2011an itzuli zen Igelaren Banda, formazioa berrituta. Hasier Oleagak jazz mundutik perkusioa ekarri zuen eta Amaiur Cajaravillek kontrabaxua gehitu zion, formazio eta ibilbide nagusiki klasikoa duen musikaria bera. Kantutegi klasikoaren zuzene

neko birmoldaketa garaikidea egiten du Igelaren Bandak eta, hain justu, zuzenekoak bereziak dira abesti tradizionaletatik jotzen dutelako, bai, baina hasi eta amaitu arteko bidaiaren geltokiak musikariak eurek soilik igarri ditzakete, eta batzuetan hori ere ez. Folk, jazz eta inprobisazioren emaitza aldakorra da haien musika, batetik bestera jauzika doana eta Arrasaten, zapatuan, hilak 20, entzuteko aukera egongo da Udazabalen barruan.

Arantzazuko koplak

Formazio berriarekin atera duten lehen diskoa *Preguntatxo bat* da, martxoan kaleratu zutena. Arantzazurako erromesaldian kantatzen ziren koplak eta bertso zaharrak hartzen ditu oinarri eta Laboaren eta Leteren abesti bana moldatzen ere ausartu dira. Zuzeneko erreperitorioarako ere azken lanetik jotzen dute baina aukeraketa musikalak Euskal Herriko hamaita txoko bisitatzen ditu, betiere, noranzko inprobisatu eta harri-

garrian. Emanaldia guztiz instrumentala da baina zapatuan Letona plazara joaten direnek zuzen zuzenean entzun ahal izango dituzte kantuen jatorri, istorio eta doinuei buruzko azalpenak. Interpretazioa, hori bai, erabat da librea. Taldeak berak dio helburua dela kontzertua ahalik eta entretenigarriena izatea eta berdin-berdin asetzeari jazz gustuko duen zalea zein folk eta musika tradizionalaren ohiko jarraitzaile ala aditu bat.



ELKAR

AMAIUR CAJARAVILLE
KONTRABAXUA

"Folkak esanahia ematen du eta inprobisaziotik buelta ematen diegu kantuei"

Musika klasikoaren mundutik dator Cajaraville. Orain bi urte batu zen Igelaren Bandara baxu-jotzailea.

Formazioa berriarekin bueltan da taldea. Zelatan?

Bixentek elkartu gintuen kontzertu bakarrerako eta hortik animatu ginen gustura jo genuelako. Errepertorioa osatzen joan gara eta elkarrengandik ikasten gabiltza. Hortik diskoa grabatu arte. Ia pentsatu gabe irten zen.

Mundu klasikotik folkera gerturaztea, erraza izan da?

Bixentek darama gidaritzia eta berak du esperientzia. Hasier eta biok asko gabiltza ikasten. Igelaren banda hiruren artean sortutako mundu bat da.

Eta nolako da ba mundu hori?

Tradizioa eta gaur egungo musika elkartzen diren lekua. Melodia eta esanahia tradizioetik dator baina beti ematen diegu buelta bat inprobisazioa sartuta. Kontzertu bakoitza ezberdina da; era diferenteetan jo dezakegu abesti berdina. Inspirazioak agintzen du une bakoitzean.

Asko alda daitezke kantuek?

Kantu bakoitzak bere bitzita du eta modu baten hasitakoa beste modu baten amai daiteke eta aldatu egiten da. Ezinbestekoa da hiruren arteko elkar-ulertzea eta oso ondo moldatzen gara bidaia horretan.



Hasier Oleaga, Bixente Martinez eta Amaiur Cajaraville. | ELKAR



Paco Sanchez abeslaria eta OskarBilly kontra-baxu jolea. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

Aita, 'hellbilly' izan nahi dut

FITXA

MUSIKA

THE POTES ETA DEAD BRONCO,**Estiloa:** Folk-rock, country, hillbilly.**Non:** Eskoriatza.**Eguna:** Egubakoitza, uztaikak 13.**Iraupena:** Ordubate talde bakoitzak.

JAGOBA DOMINGO | ESKORIATZA

Oso zaila izango da Errekan Gora jaialdian egubakoitzean bizi izandakoa hobetzea. Baliteke programazioko talde ezezagunenak izatea, baina bertaratu zirenek jarrera eta nortasun ikastaroa jaso zuten.

Arrasatear *irish* koadrila baldarrak eta Hank Williams edo Bob Wayne cowboy-en sasikumeek

dantzan jarri zituzten udaletxeko aterpean batu ziren guztiak.

Protagonistak, The Potes; taberna zuloetan ezagunak diren arrasatearrak; eta Dead Bronco, Bilbo inguruan bizi diren bidelapurak izan ziren. Astero ikusten ez den emanaldi bizi eta tarteka arriskutsua eskaini zuten bi taldeek. Eta amaiera ezin-hobe bezala, Old Crow Medicine Show taldearen *Wagon Wheel* kantua jo zuten biek batera.

The Potes, 'Whiskey in the Jar'

The Potes proiektuaren orain arteko kontzertu borobilena izan zen egubakoitzekoa. Elkar ulertzea sekulakoa izan zen, eta horri esker publikoari festarako gogo bikain transmititu zioten. Bat baino gehiago harritu zuen seikoteak, eta utzi zituzten momentu bikain batzuk.

The Pogues, Social Distortion, The Dubliners edo Flogging Molly taldeen klasikoak berpiztu zituzten, *Dirty Old town*, *Whiskey in the Jar* edo *Fiesta* adibidez. Eta giroa edo beste arrazoiren bat medio, jendearen gozatzeko gogoak kantuekin berehala egin zuen bat, bai publikoak baita taldekideak asetz.

Dead Bronco, sekulakoak

Esan bezala, Dead Bronco aurten gozatzeko gogoak kantuekin berehala egin zuen bat, bai publikoak baita taldekideak asetz.

Hillbilly, country eta *redneck* musika; amerikar baldarren musika omen da. Bada, Dead Bronco boskoteak, maisutasunez eta bihotzez interpretatu zuen.

Formazio bizkaitarra ez da edonolako; kajoia, *steel* gitarra, kontrabaxua, banjoa eta gitarra akustikoa. Baina Paco Sanchez abeslariaren lehenengo hitzarekin bat, 50eko Amerika sakonera bidaia hasten da; Hank Williams, Johnny Cash edo Duane Eddy errege ziren Amerikara; indartsuenak agintzen zuen lurralde basati horretara.

Goiena Klubeko bazkideendako, Euskaltel Euskadiri esker

Tourreko Euskaltel-Euskadiko zortzi kamisetaren zozketa



PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA Euskaltel [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: klubak@goiena.com

WhatsApp: KLUBA Euskaltel [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Eguazten arte jasoko dira mezuak.

Saridunen berri egubakoitzeko Goiena paperean emango da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: klubak@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Buruaren tamainako harrera

Ume asko batu ziren Antzuolan buruhandi berrien aurkezpenean

JULEN IRIONDO | ANTZUOLA

Egubakoitzean aurkeztu zituzten neska-mutikoz eta gurasoz betetako plazan Alardeko protagonista nagusiak, Mairua eta Buruzagia, irudikatzen dituzten buruhandi berriak.

Iñaki Mata herriko artistak egin ditu eta nola geratu diren erakutsi aurretik egiteko modua azaldu zien plazara joandakoei. "Ez nuen espero halako harre- ra. Aukera paregabea izan da;

normalean lana egiten duzu ezkutuan, eta jendearengana hurbiltzea beti da ona", zioen.

Mairuaren Alardearen Kultura Elkarteko lehendakari Xabier Legorburu oso pozik agertu zen emaitzarekin eta iragarri zuen buruhandiok ez dituztela umeak joko, zentzu positiboa izan dezaten nahi dutelako, Alardeak berak bezala: "Kulturen arteko laguntasuna" adierazi nahi dute.



Buruhandiak, aurkezpen osteko kalejiratzekoan. | JULEN IRIONDO



Iñaki Mata, azalpenak ematen. | J.I.



Buruhandien aitzakian umeentzat egindako mozzorroak. | J.I.

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!

UDA KO ARGAZKIEN IX. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.net/argazkiak

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



MIKEL SEDANO RUEDA, 2012ko Sari Nagusiaren irabazlea.



MIREIA AGUIRRE, 2012ko bigarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!



GARAZI OLABARRIA, 2012ko hirugarren sariaren irabazlea.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 5etik irailaren 20ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05, Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 7an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en (www.facebook.com/udakoargazkiak) eta Twitter-en (www.twitter.com/udakoargazkiak) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!


- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
 - **Twitter bidez**, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda.
 - **Facebook bidez**, [facebook.com/UdakoArgazkiak](https://www.facebook.com/UdakoArgazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookeez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatearik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

Sariak

1. saria

Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.

- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



2. saria: bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Orioko AISIA hotolean Arrasate Bidaiek-en eskutik.



3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Herritarren saria: Google Android sistemadun 7 hazbeteko tableta, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI

zurekin

karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com



Animatu zen taldea Herriko Plazatik irteteko prest. | LORAMENDI ELKARTEA

Jende gutxi baina ibilbide polita txondorren historia ezagutzeko

Dozena bat aretxabaletar animatu ziren atzo txondorrek zeuden lekuak bisitatzera

JAGOBA DOMINGO | ARETXABALETA

Dozena bat pertsona batu ziren atzo Aretxabaletako Herriko Plazan, herriko 82. kilometroan, garai bateko txondorrek non egin zituzten ikusteko. Loramendi elkarteak gogora ekarri bezala, bigarren saiakeran egin dute ibilbidea; berez ekainean egitekoak ziren, baina orduko eguraldi kaxkarra zela-eta, atzo egin zuten azkenean.

Espero baino herritar gutxiago animatu ziren; hala ere, gogotsu hasi zuten 09:00etan 15,5 kilometro inguruko ibilaldia. Hasteko, *Peñakulo*-n dagoen Boliña-Azpi baserriraino autoz igo ziren, eta hortik Kurtzebarri aldera egin zuten. Ondoren, Ugaztegi ingurura iritsi eta bertatik Urkulura jaitsi ziren.

Txondorren bueltan

Bidean, baina, hainbat geldialdi egin zituzten, txondorrek zeuden

lekuetan, eta, horietan, ikazkintzaren inguruko kontuak izan zituzten berbagai.

Loramendi elkarteak topografia taldeak antolatu du ibilbidea; horren aurretik, baina, txondorren eta ikazkintzaren inguruko hitzaldiak egin zituzten, Fermin Pasamar, Jose Luis Madinabeitia eta Antonio Urkia txondorgileekin.

Jende gutxi, baina pozik

Antolatzaileek pozik amaitu zuten eguna, jende gutxi animatu bazen ere. Aretxabaletan beste hainbat ekintza zeuden atzo, eta horrek zerikusia izan zuela zioten.

Euren ustez, orain arte egin duten ibilbide politena izan da, aurrekoak historikoagoak izan arren, atzokoan paisaia ederrez gozatu zutelako. Beraz, etxera nekatuta baina jakintsuago iritsi ziren *ikazkin* berriak.



Perretxikotan ere egin zuten. | LORAMENDI ELKARTEA



Mendian, giroaz gozatzen. | LORAMENDI ELKARTEA

Ura eta pertsonak, Sotoren margolanen protagonista

Javier Soto ordiziarrek 'Murgiltzea' erakusketa aurkeztu zuen pasa den astean Aroztegi aretoan

JAGOBA DOMINGO | BERGARA


Ura eta itsasoa; igerilekua eta surfa ardatz hartuta, Javier Soto margolari ordiziarrek *Murgiltzea* erakusketa aurkeztu zuen pasa den astean zehar.

Erakusketa alaia, koloretsua eta freskagarria plazaratu zuen Bergarako Aroztegi aretoan. Akuarelarekin egindako obrak izan ziren gehienak, koadro handi eta erakargarriak; artistaren arabera, gizakia naturarekin erlazionatzen duen bilduma.

Baikortasuna transmitzea

Soto ordiziarren helburua da baikortasuna transmitzea, eta, horretarako, igerilekuan eta hondartzan bizitako momentuak irudikatu ditu. Bere esanetan, baina, irudiak ez dira errealtatearen kopia hutsa; mezu argia dutela azpimarratzen du.

Pasa den astean, bergarar nahikotxo joan zen Sotoren erakusketa ikustera; eta margolanak ikusi ondoren, seguruenik, freskoago irtengo ziren.



Pertsona bat, koadroak ikusten. | IMANOL SORIANO



20130709_AppStore_0061

Smartphone askotatik jaitzi dira aplikazioak App Storetik. | WIRED.COM

App Store, bost urte gailuak aplikazioekin aberasten

Hainbat programa doan daude eskuragai urteurrena aitzakiatzat hartuta

GUREN AUZMENDI | ARRASATE

2008an sortu zuen Apple etxeak App Store zerbitzua. Horri esker, Apple-en gailu eramangarrien jabeek erabilera aberatsagoa eman diete euren gadget-ei. Ospatzeko, hainbat aplikazio eta joko dohai-rik jaitzeko moduan jarri ditu enpresa estatubatuarrek egun gutxi batzuetarako.

Ezer ordaindu gabe eskuratzeko bost programa jarri ditu sarean App Store-ak; bost urtean sekulako arrakasta lortu du eta. *Barefoot* atlasa da bat, gure munduaren ingurukoak ikasteko balio duena. *Day One* aplikazioarekin, berriz, egunerokoa osatu ahal du erabiltzaileak idatzi eta bideoekin; eta *How to Cook Everything* errezeta-gehigarria sukaldean gano-raz eta aspertzeko aukerarik gabe ibiltzeko lagungarria da. *Over*

eta *Traktor DJ* programak ere doan hartu daitezke sareko-hornitzailetik. Bost joko ere jarri dituzte doan: *Badland*, *Infinity Blade II*, *Superbrothers: Sword & Sorcery*, *Tiny Wings* eta *¿Dónde está mi agua?*. *Tiny Wings* jolas-aplikazioa da azpiragarriena; izan ere, *app* salduenen zerrendan dago.

Zerbitzu arrakastatsua

Sekulako loraldia izan dute Apple etxearen gailuek gure artean ere. Urtetik urtera gorantz doaz. Horren erakusle dira App Store zerbitzuak lortutako emaitzak; ez baita ahaztu behar etxe horretako tresnentzako baino ez dute la balio aplikazio horiek. Urte horietan, guztira 50.000 milioi *app* jaitzi dira zerbitzu horretatik eta segundoko 800 aplikazio esku-

ratzen dituzte mundu osoko *apple-zaleek*. Orain bost urte 500 aplikazioarekin sortu zen zerbitzua itzelezko gorakada eduki du, inolako zalantzarik gabe. Geroztik, Facebook, YouTube eta Skype iPhone euskarri gehienetan dira App Store-ari esker, zerbitzu erabiltzen artean.

Gainera, bost urte horietan programak igotzeko aukera izan dute hainbat garatzailek; hau da, aplikazio informatiko oinarriko bat hartu, eta euren denda birtualera igotzeko eta saltzeko. Gaur egun, 6 milioi lagun daude izena emanda jarduera horretarako. Eta App Store zerbitzuaren bezeroen fidelotasuna ere azpimarratzeko da: 100 aplikazio jaitzi zituen bakoitzak 2012an zehar. Aplikazioentzako denda birtualak ia 600 milioi kontu ditu irekita.

Euskaltel enpresak Orangeren sarea erabiliko du 2014tik aurrera

G. A. | ARRASATE

2006tik Vodafoneren sarea erabili du Euskaltelek espainiar estatuan estaldura eskaintzeko. Datorren urtetik aurrera, baina, Orange-erenarekin moldatuko da.

Euskaltelek erabaki du Vodafone-erekin zuen hitzarmena ez berritzea; Amenarekin lan-kidetza hautsi zuenetik egiten zuen lana harekin. Hainbatentzat harrigarria gerta liteke, izan ere, Orange-eri Euskaltelek 222 milioi euro ordaindu behar izan dizkio kalte-ordainetan.

Aldaketak Euskaltelen

Euskaltelen estrategia berria sartu diren akziodun berriek ekarri dute; Triatlantic eta

Inverindustrial inbertsio-funtsek enpresaren %48,1 dute euren eskuetan.

Akziodun berriek, euren diruei ahalik eta etekin handiena ateratzearren, Orange-erekin bat egitea komenigarria ikusi dute. Harekin bat eginda enpresa oparoagoa izango dela uste dute. Eta France Telecom etxearen filialak Hegoaldeko lurraldeetan muturra berriz sartuko luke. Ez baita ahaztu behar, Euskaltelek sekulako dirutza ordaindu bazion ere, ia bezerorik gabe gelditu zela Hegoaldean Orange. Eta krisialdi ekonomikoak gutxiago eragin du gure inguruan. Uler-tzeko moduko arrazoiak dira bizi ditugun garaioetan.



Berriz batera egingo dute lan bi konpainiek. | TODOSOBREARBITRAJE.WORDPRESS.COM

Mozillak mugikorrenentzako sistema eragilea egin du Espainian

G. A. | ARRASATE

Orain arteko *smartphone* gehienak multzo bitan banatuta zeuden. Guzti-guztiak: batzuk Android sistemarekin zebiltzan eta besteak iOSrekin. Hegoaldeko lau lurraldeetan, ordea, Mozilla fundazioak bere sistema eragilea aurkeztu du.

Google eta Apple etxeen sistemak oso lotuta daude momentuan momentuko euskarrien teknologiarekin: mugikorren ahalmenaren arabera sortzen dira programak, ahalik eta astunenak. Beraz, berritasunak sarritan mugikor berrietan baino ez dabiltza egoki, gaitasun handia behar dutelako. Horrek, gainera, energia-kontsumo handia dakar, eta ondorioz, askotan kargatu behar


izaten dira telefonoak. Mozilla-koek dakarten sistema-eragilea bestelakoa da. Oinarrian sarean ibiltzeko nabigatzailea dauka Firefox OS programak eta HTML5 kodearekin dabil. Ondorioz, askoz ere eskakizun teknologiko txikiagoa du Mozillaren sistemak eta bateria-kontsumoa ere askoz txikiagoa da. Darabilen kode irekiari esker, aplikazioak edonondik jaitsi ahaliko ditu erabiltzaileak eta ez banatzaile bakar batetik.

Merkatu berrien bila

Firefox OS sistema bigarren mailako telefonoak dituztenentzako da egokiagoa. Mugikor berriena derrigorrean eduki behar ez duten horientzat. Indar gutxiarekin ere badabilelako.

Disko gogorra ordezkatu nahi du Dropboxek

Orain artean datuak gordetzeko aukera eman du enpresak. Hemendik aurrera, baina, ordenagailuarekin sinkronizatuz joango da 'hodeia'. Ez hori bakarrik, ordenagailu batek baino gehiagok bat egiteko ere balioko du. Etorkizunera begira, disko gogorra ordezkatzeko duela esan dute programaren diseinatzaileek.



ALTI040.COM

Estatuko eskoletako ordenagailuetan software askea lehenetsi du Frantziako parlamentuak

Software askearen jarraitzaileak direnek berri ontzat hartu dute Frantziako eskoletan programa informatiko libreak lehenetsi izana. Erabaki horrekin pausu bat eman dela uste dute enpresa handien neurrigabeko boterearen aurka; baina estatuen barruko gainontzeko egiturek ere bide horretan jarraitu behar lukeela uste dute. Parlamentuak erabaki hori hartzerakoan software-enpresa handien presioak izan dituela kontuan izan dute, ordea, eta horregatik baikor agertu dira erabakiarekin.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Maddi Alarcia
6 urte. Zorionak eta patxo handia tia Kontxiren partetik.



OÑATI
Iban Guridi Diaz
Uztailaren 21ean, 5 urte. Ez dakigu munduko futbolista onena izango zaren edo ez, baina jakinian gauz munduko semerik ederrena eta maitakorrena zarela. Muxu handi bat eta bost belarriko tirakada zure urtebetze eguna zelebraitten dozun egun honetan. Aitaxok eta amatxok asko maite zaitugu.



ARETXABALETA
Nora de Cesero Eraña
Uztailaren 21ean, 5 urte. Zorionak etxeko txikitxoenari familia osoaren partetik. Muxu handi bat!



OÑATI
Oier Sanchez Gomez
Uztailaren 21ean, 4 urte. Zorionak, Oiertxu! Zelako mutiko handia! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean, etxeko guztien partetik. Muxu handi bat!



OÑATI
Izar Unzurrunzaga Goñi
Uztailaren 20an, 5 urte. Izarren hautsa egun batean bilakatu zen neska alai. Aitaren eta amaren partetik zorionak eta muxu handi bat, bihotza.



ESKORIATZA
Oinatz Andetxaga Korujo
Uztailaren 19an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunian Gentzane, aita eta amaren partetik. Aupa Reala!



OÑATI
Iker Serrano Lopez
Uztailaren 19an, 3 urte. Zorionak, pottolin! Hiru urte bete dituzu. Ondo pasatu zure egunean. Muxu handi-handi bat zure gurasoen partetik.



OÑATI
Oier Sancho
Uztailaren 16an, 12 urte. Zorionak, mutikote! Ondo pasatu zure urtebetetzea Lizarra inguruan. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Maialen Martinez Nanclares
Uztailaren 15ean, urtebete. Zorionak zure lehenengo urtebetetzean, etxeko partetik! Egun polita pasatu, sorgintxo!



OÑATI
Mari Karmen Araiztegi eta Iñaxio Inza
Uztailaren 14an eta 31n urteak beteko dituzte. Zorionak familia danaren partetik! Laztan handi bana eta ondo-ondo zelebratu!




OÑATI
Luka Galdos Etxeberria
Uztailaren 14an, 3 urte. Gure mutikuak hiru urte. Zorionak, pottoko!



OÑATI
Luisa Hernandez
Uztailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, amama Luisi! Holako guapa eta alai jarraitu. Muxu potolo-potoloak eta besarkada bat! Familia guztiaren eta, bereziki, Mario eta Enzoren partetik.



OÑATI
Aiuri Umerez
Uztailaren 12an, 5 urte. Zorionak, potxola. Ondo pasatu zure eguna. Merendola eder batekin ospatuko dugu. Patxo handi bat danon partetik, bereziki Helene, Ekain, Izaro, Nahia eta Hodei txikia.



ARRASATE
Uxue Nalda Gonzalez
Uztailaren 12an, urtebete. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat lhabar, aita eta amatxoren partetik.



BERGARA
Lander Nieto Martin
Uztailaren 11n, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat zure egunian. Maider, aita eta ama.



ARETXABALETA
Markel Alarcia
Uztailaren 11n, 3 urte. Zorionak eta patxo handia tia Kontxiren partetik.



BERGARA
Idoia
Uztailaren 11n, 33 urte. Zorionak, prexioxa! Bergarar berri horri... pa handi bat eta zorionak denon partetik!



OÑATI
Malen Gesalaga Legorburu
Uztailaren 10ean, 9 urte. Zorionak, Malen. Ondo pasatu zure eguna. Zure lagunaren partetik.



ELGETA
Markel Larrañaga Mandaluniz
Uztailaren 10ean, 3 urte. Zorionak, Marke! Gaur hiru urte! Patxo potolo bat etxeko danen partetik.



ARETXABALETA
Oinatz Zabala
Uztailaren 9an, 6 urte. Zorionak, guapa! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian, etxeko guztien partetik. Muxu handi bat.



BERGARA
Maider Nieto Martin
Uztailaren 8an, 7 urte. Zorionak, guapa! Ondo pasatu eta muxu handi bat. Aita, ama eta Lander.



OÑATI
Ibon Emparanza
Uztailaren 8an, 38 urte. Zorionak, aitaxo! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat Ane eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
Eider Arias Axpe
Uztailaren 12an, 6 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi-handi bat etxeko danen eta, bereziki, Unai eta Ikerren partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituzte Goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituzte Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Ibai Segurola Garate

Bergara. 3,060 Kilo. Uztailaren 5a. Gurasoak: Lorea eta Eneko. Argazkian, aitarekin.



Lide Urdineta Zubizarreta

Aretxabaleta. 4,200 Kilo. Uztailaren 9a. Gurasoak: Eneritz eta Urdi. Neba: Manex. Argazkian, Lide sehaskan lo.



Oihan Zarketa Dominguez

Oñati. 3,170 Kilo. Uztailaren 10a. Gurasoak: Yobana eta Mikel. Argazkian, Oihan jaioberria.



Aitor Mugarza Aurre

Oñati. 3,650 Kilo. Uztailaren 9a. Gurasoak: Aintzane eta Iñaxio. Argazkian, Aitor jaioberria amarekin.



Eñaut Labayen Marin

Arrasate. 2,850 Kilo. Uztailaren 8a. Gurasoak: Ixone eta Iñigo. Argazkian, Eñaut amaren besoetan.



Izaro Fernandez Ezkurra

Arrasate. 3,400 Kilo. Uztailaren 8a. Gurasoak: Irrintzi eta Santiago. Argazkian, Izaro amarekin.



Amaiur Otazu Arzelus

Leintz Gatzaga. 3,820 Kilo. Uztailaren 12a. Gurasoak: Amaia eta Roberto. Argazkian, Amaiur jaioberria amarekin.



Urko Garitano Urzelai

Oñati. 3,800 Kilo. Uztailaren 10a. Gurasoak: Naiara eta Gorka. Argazkian, Urko sehaskan lo.



Beñat Zillaurren Iria

Aretxabaleta. 4,150 Kilo. Uztailaren 12a. Gurasoak: Nagore eta Jokin. Argazkian, Beñat jaioberria sehaskan lo.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.

Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkaritza batera.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	* Oriatiko auzoa	Txinparta	Modu hotzean
	Metal erradioaktibo	Legea	Galdera
	Oso-oso garbi		
	Izkinak		
Europako estatua	Pl., txori mota		
Euria egiteari utzi	Gaixo		
		Bike	
		Perukoa	
Ardiak zain-tzen ditu			Ipar EH-n, askotan, sarritan
Kristauen topagunea		Nauka	
		Galderetan	
Iodoa	Barazki hostotsuak		Sufrea
Kalkulua egin	50		Tona

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

U	T	A	L	U	K	A	L	K
S		K	A	Z		I		
U	A	N		Z	A	L	E	
	N		Z	A	R	T	A	
I		U		I		T	E	
K	A	R	A			I		
Z	A	R	A			U	R	A
O								
H		I						

E	L	X	T	A	N	H
G	R	A	R			B
I	D	S	A	G	S	O
S	A		N	A		G
U	E	A	O	A		A
A	N		T	E	N	T
A	N	X	U	I	N	S
D	H	O	R	A	D	A
A	R	N	E	S	Z	B

2	1	3	9	8	4	7	6	5
8	5	9	6	7	3	1	2	4
6	7	4	2	5	1	3	8	9
7	6	2	5	3	8	4	9	1
4	8	1	7	6	9	2	5	3
3	9	5	1	4	2	8	7	6
9	2	7	4	1	6	5	3	8
5	4	8	3	9	7	6	1	2
1	3	6	8	2	5	9	4	7



Ezetz igarri! Biak egongo dira distantzia berera.

SUDOKUA

	3	6	8		5	9		
		8			7			
				1			3	
	9	5		4				6
	8			6		2	5	
	6		5			4		
	7	4	2	5		3	8	
			6	7				
			8					5

HIZKI SALDA

Topa itzazu Hego Amerikako bost estatu

A	R	N	E	S	Z	B	A	Z
G	O	R	A	D	A	O	H	D
N	S	I	N	U	X	L	N	A
A	R	G	E	N	T	I	N	A
A	R	F	A	O	A	V	E	U
G	U	Y	A	N	A	I	A	S
S	O	V	G	S	A	A	D	I
B	R	A	S	I	L	A	R	G
H	A	N	A	T	X	I	L	E

EZETZ IGARRI!

Tren bat Bilbotik Bartzelonarantz abiatu da. Beste bat, ordubete geroago, Bartzelonatik Bilborantz. Bi trenak abiadura berberean doaz. Bietako zein egongo da Bilbotik gertuago elkar gurutzatzen dutenean?

AI, ENE!

Erre ez; jan ere ez; eta edan, ozta-ozta

Turkiako gizon honek ez erre-tzeko asmatu duen kaiola deigarria da benetan. Ez dakigu igeltsua ere strategiaren zati den.

<http://arbroath.blogspot.com.es>



AHOBERO

"Onenak ez diren gauzei buruz berba egiteko nolabaiteko joera dugu"

MARIANO RAJOY | ESPAINIAKO PRESIDENTEA

Luis Barcenasen agiriak direla eta, ez da aste onena izan Rajoy-rentzat. Opelen lantegi baten esan zituen hitzok, PPko diruzain ohiari inongo erreferentziarik egin gabe. Gauzak onak edo txarrak izan, aproposena ez al da denak agerian jartzea?

www.elmundo.es

EGURALDIA



Max. 30°

Min. 17°

Zerua urdin egongo da; arratsaldean bero-hodeiak garratu dira.

euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-07-15

HAMARREKOA

Asier Odriozola Berak dioen moduan lasartear militantea, Euskal Filologia ikasi zuen arren hogei urtetik gora daramatza kazetaritza arloan; egun, gaueko 'Teleberri'-an | TXOMIN MADINA

"Futboleko arbitro izateak nortasuna indartzen lagundu zidan"

1. Nolakoa izan da ikasturtea ikuspegi informatibotik?

Oso intentsua, gehienbat arlo ekonomikoan: albiste txar asko ematea tokatu zaigu ia egunero. Distantzia pixka batekin eman arren, albiste beltzak dira, gero eta jende gehiagori eragiten diotenak; horrek ukitu eta nekatu egiten zaitu.

2. Politikarien prentsaurrekoak pantaila bidez diren garaiotan, zein litzateke kazetarien papera?

Kaleko kazetaria nintzenezan aurpegia ematen zuten behintzat. Kazetaritza zailtzen dabil: politikariek euren mezua ematen dute, eta askotan ez dago galdetzerik. Hori ez da ona, ez kazetariarentzat, ezta herritarrentzat ere.

3. Eta zer egin dezake kazetariak?

Aukera bakarra da politikariak gorritzea, lotsaraztea: herritarrei erakustea nahi dutena diotela eta herritarrek jakin nahi dituzten gauza asko ez dagoela jakiterik.

4. Zure lana idazten dizutena irakurtzea bakarrik dela dioenari, zer?

Etortzeko nirekin arratsaldeko lehen ordutik, arratsaldea pasatzeko nirekin eta gero etortzeko nirekin platora, *Teleberri*-ra: agintzen diot ez duela berdin pentsatuko. Lan intentsua eta delikatua da.

5. Albistegietako guapoa. Pisatzen duen etiketa?

Etiketeta bat da, eta etiketen artean ez txarrena; atsegina iruditzen zait. Lan publikoa dugunok arrisku hori dugu, etiketatuta izatea.



AGM

MAKILA MAGIKOIA BANEUKA...

"Nahi dudana lekuan agertu"

"Maila pertsonalean, nahiko nukeen superboterea litzateke neure buruari buelta eman eta nahi dudana lekuan agertzea: *Teleberri*-a amaitu, buelta eman eta etxean egotea, esaterako. Gero, egoera ekonomikoa aldatzea nahiko nuke, baita bakea mundu guztian ere: topikoak dira, baina berez gauza garrantzitsuak".

6. Bukatu da *Teleberri*-a; zer da egingo duzun lehen gauza?

Korrika, makilaje eta guzti, autobusera joatea. Garraio publikoan mugitzen naiz eta autobusa darabilt Bilbotik Donostiara joateko.

7. Kamaren aurretik, irratiko mikrofonok izan zenituen lagun.

Profesionalki gehiago gozatu dut telebistan. Irratia ahotsa bakarrik da, telebistan espresibitatea eta mugimendua ere badaude; osoagoa iruditzen zait. Baina irratian hasi nintzen, eta oroitzen onak ditut; batez ere lankideekin.

8. Zein saltok beldur gehiago, irratitik telebistarakoak edo *Gaur Egun*-etik *Teleberri*-rakoak?

Beldurra ia ezerk ere ez: aukerak dira, eta nire buruan badut konfiantza. Baina segur aski irratitik telebistarakoak; bestea ez zen horrenbestera izan.

9. Denok dugu iragana; zuk, benetan beltza: futboleko arbitro izatea.

Hamahiru urte izan ziren; oso esperientzia ona. Lagunarte handia egin eta nire nortasuna indartzen lagundu zidan: egoera zailetatik ateratzeko tresnak neureganatu eta psikologikoki indartu ninduen. Lanerako ere balio izan dit.

10. Elkarrizketa honen ostean, bizikletan ibiltzera irtengo zara. Egunero eta derrigorrez?

Parean dut bizikleta. Atzo lau ordu egin nituen, gaur gutxiago. Pasioa dut: ez dut horretarako gorpuzkera, baina izugarri gozaten dut.

BIHARAMUNA

ITXARO ARTOLA



Behera Sanpilitin

iruñeko sanferminak, horiek bai festak. Urteak ez naizela joan, baina eginahalak eta bi egingo ditut 2014koetan egoteko. Plana azalduko dizuet eta animatuz gero, idatzi Goienara. Txupinazoarekin hasiko dugu festa. Gertuen daukagun idiskoa obatu eta katxi bat kalimotxo irentsaraziko diogu. Goitik behera biluztuko dugu gero. Bo, goitik behera ez, lazo polit bat egingo diogu zakilean *pañuelico*-arekin. Eta gerrikoa lepoan lotu, ihes egiteko tentazioa izango balu ere. Jaia leher-tu ostean, kalez kale eroango dugu lau hankatan. Gose bagara, haren Pamplonako txorizotik jango dugu ase arte. Pixagura badugu, burutik behera egingo diogu. Erresistentzia jartzen badu, botila batekin otzanduko dugu atzeko ahotik. Majo gozatu eta gero, Navarriako iturrira lotuko dugu, nornahik adarka dezan. Lagun batek esan dit hori eraso sexuala dela. Ezetz erantzun diot. Egunkari batean irakurri dudanez, "eme-harrapaketa" ohitura bihurtu dela txupinazoan; agintarian onespenea ere baduela, aurten garbi ikusi denez; eta tuntun hutsak izango ginela honenbestez, parrandara bildutako arren kitzikapenez olgatuko ez bagina gu ere; nire plana uneko euforiak eragindako beste jolas soil bat izango zelako duda gabe; eta ea zer duen horrek txarretik.

iKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

